

HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua
Ikasturtea: 2018-2019

AUTOKUDEAKETAREN AUKERAK ESKOLA KIROLEAN

Liskarren ebazpena aztergai

EGILEA: AZPIAZU ZUBELDIA, JON MIKEL

ZUZENDARIA: USABIAGA ARRUABARRENA, OIDUI

DEIALDIA: 2019ko EKAINA

AURKIBIDEA

1.	SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA	3
2.	HELBURUAK	4
3.	TESTUINGURUA: ZIRIMARA PROIEKTUA	4
3.1.	ABIAPUNTUA	6
3.2.	ESKOLA KIROLEKO EREDU ZAHARREAN EGINDAKO ALDAKETAK	8
3.3.	2018-2019 IKASTURTEKO ZIRIMARA.....	8
4.	MARKO TEORIKOA.....	10
4.1.	ZER DA AUTOKUDEAKETA?	11
4.2.	HEZITZAILEAREN FUNTZIOA	14
4.3.	LISKARREN EBAZPENA.....	16
4.4.	MARKO TEORIKOAREN SINTESIA: IKERKETAREN ABIAPUNTUA.....	20
5.	METODOLOGIA.....	21
5.1.	SARRERA /DISEINUA	21
5.2.	PARTE HARTZAILEAK.....	21
5.3.	DATUAK JASOTZEKO TEKNIKAK	22
5.4.	PROZEDURA.....	23
5.5.	DATUEN ANALISIA.....	24
6.	EMAITZAK ETA EZTABAIDA	24
6.1.	JOKOAREN EGITURA.....	25
6.2.	LISKARRAK	27
6.3.	LISKARREN EBAZPENA.....	28
7.	ONDORIOAK.....	30
8.	APLIKAZIO PRAKTIKOAK.....	32
9.	ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	34
10.	ERANSKINAK.....	36
10.1.	BEHAKETAK	36
10.2.	ELKARRIZKETAK	41
10.3.	BAIMEN INFORMATUA	48

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Usurbilgo eskola kirolaren eraldatze fasean kokaturik, Zirimara proiektuari nire ekarpena egiteko asmotan dator lan hau. Herriko eskola kirol eredu zalantzan jarri eta hainbat hutsune topatu ostean, eredu integralago baten bila abiatu zen asmo horretarako sortutako talde eragile bat. Fase horretako eztabaidetan parte hartzeko aukera izan ondoren, aurtan abian jarri den proiektua aztertu eta hezitzaile gisa bizitzeko aukera ere izan dut.

Autoebaluazio jarrai batean bizi da Zirimara proiektua, uneoro hobetzeko asmotan. Proiektu honetako kideek jarritako indar eta ilusioek eskola kirolak haurrengan sekulako garrantzia duela ikusarazi dit, hezkuntza esparruan kokaturik, herria eraikitzeke tresna indartsu bat izan daitekeela sinestaraziz.

Zirimararen eraldaketa fase honetan hainbat puntu indartu nahi izan dira, haien artean, erabiliko den metodologian azterketa sakon bat eginez. Hezitzaileek saioak aurrera eramateko estrategia ezberdinak izan ditzakete, hala nola, jolasak aukeratzeko, dinamizatzeko edo gertatzen diren liskarrak konpontzerako orduan. Estrategia edo prozedura hauek autokudeaketarekin lotu nahi izan dira (Usabiaga, 2018). Askok erakarri nau erabaki honek, alde batetik, graduaz zehar heziketa fisikoa izan delako nire hausnarketa esparru nagusia eta gai honen inguruan hanka motz gelditu naizenaren sententzia dudalako. Landu beharreko edukien inguruan asko eztabaidatu dugu, jarduera bakoitzak pertsonari eragiten dioten ekarpena aztertuz, ez ordea eduki hauek nola landu daitezkeenaren inguruan. Bestetik, autokudeaketaren fenomenoaren eguneroko bizitzara transferigarria izan daitekeela pentsatzen baitut. Haurrengan garapenean eta taldearen ongizatean eragin zuzena izan dezakeela uste dudanez, onura hauek ongi aztertzea eta nola aplikatu ditzakegun jakitea interesgarria iruditzen zait.

Prozedura hauek sakonki ezagutu eta eskola kirolean gerta daitezkeen liskarrekin lotzen saiatuko naiz. Landu beharreko gaia dela iruditzen zait, gatazkak gertatzen direla jakinik, bertatik etekin positiboa ateratzea garrantzitsua delako. Horregatik, Zirimara proiektuan esku hartze bat burutu baino, dagoen egoera ikertzea eta nire interpretazio bat osatzera mugatuko naiz, hezitzaile moduan bizi izan ditudan esperientziak ikuspegi ikertzaile batetik aztertzen saiatuz.

Nire prestakuntzarako baliagarria izateaz gain, lan hau herriko eragileentzako erabilgarria izan daitekeela pentsatzeak ilusioz betetzen nau.

2. HELBURUAK

Lan honen helburu nagusia Usurbilgo eskola kiroleko Zirimara proiektuan (6-10 urteko ikasleak) egiten diren jarduera mota ezberdinetan haurren artean gertatu ohi diren liskarrak nola ebazten diren aztertzea da. Izaera deskribatzailea duen ikerketa honen bidez ondoko helburu espezifikoak lortu nahi dira.

- Liskarrak noiz, non eta zein jardueretan ematen dira? Jarduera motak, espazioak eta momentuak liskarrarekin duen erlazioa aztertzea izango da helburua.
- Zirimarako hezitzaileek jarduera fisiko ezberdinetan ematen diren liskarrak ebazteko zein ikuskera dute? Galdera honi erantzunez hezitzaileen ildo pedagogikoa zein den aztertu nahi da.
- Gatazken konponketan nortzuk (hezitzaileak eta haurrak) parte hartzen dute eta zein prozedura erabiltzen dituzte? Liskarren ebazpenean hezitzaileek eta haurrek zenbaterainoko parte hartzea duten eta konponbidera iristeko zein estrategia erabiltzen dituzten aztertu nahi da.

Helburu hauek betetzea lortzen bada, Zirimararen liskarren inguruko diagnostiko edo informe bat eskuratuko dugula uste dut.

3. TESTUINGURUA: ZIRIMARA PROIEKTUA

Lana Zirimara proiektuaren azterketan oinarritzen denez, Usurbilgo eskola kirolaren testuinguratze bat egitea garrantzitsua iruditu zait. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eskola kirolaren dekretuak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA) arautzen dutena aipatu eta Usurbilen gauzatzen den programaren azalpen bat egingo dut.

125/2008ko Dekretuak, Eskola Kirolari buruzkoak, honako aipamenak egiten ditu: *“Eskola kirola eskola-umeek nahitaezko eskola aldian baina eskola orduetatik kanpo egiten duten kirol jarduera da. Eskola kirola osatzen duten jarduerak hezigarriak izan behar dute, alegia, eskola umeen heziketa integralaren barruan kokatuta egongo dira eta heziketa sistemaren eta haren etapan helburuekin bat egingo dute oro har, bereziki gorputz hezkuntzaren alorreko helburuekin. 6-16 urte bitarteko haur hauek burutzen dituzten jarduerak mugimenduzkoak, jarduera fisikoak eta/edo kirolekoak sustatu behar dituzte.”* (125/2008 Dekretua, 3.or.). Baieztapen hauetatik abiatuta, foru aldundi bakoitzak bere programa arautzeko

askatasuna izango du, EAEko hiru lurraldeetan ezberdina izango delarik. Hala ere, programa hauetan gehienez 3 ibilbide ezberdin markatu ahaliko dira: parte hartzeko ibilbidea, errendimendura bideraturikoa eta teknifikazio edo talentu indentifikazioari dagokiona. Zirimara eskola kiroleko programa LH1etik LH4ra bitartekoa da, beraz, adin tarte honetan eskola kirolaren inguruan dauden aukeretan zentratuko naiz.

GFaren programari erreparatuz, aurrebenjaminak (LH1-LH2) eta benjaminak (LH3-LH4) dira Zirimarako haurrak. Programa orokorrak aurretik aipaturiko hiru ibilbideak barnebiltzen dituen arren, adin tarte honetan parte hartzeko ibilbidea bakarrik landu daiteke. Parte hartzeko ibilbidea hastapeneko jarduerak, parte hartzeko lehiaketek eta aniztasun funtzionala duten pertsonentzako bereziki planteaturiko jarduerak osatzen dute. Horrez gain, aurrebenjaminentzako Jolas Hezi aurki dezakegu, gizartearen garapena (generoa, parte hartzea, iritzi kritikoa ...) bultzatuko duten etorkizuneko biztanleen hezkuntzan eragitea helburu duen programa. 6-8 urte bitarteko haurren garapen motor, kognitibo, afektibo eta sozialaren oinarriak eraikitzeke sortua izan da, etapa honetan heziketa integralak duen garrantzia azpimarratuz. Gainera, balioen hezkuntza, aniztasunari erantzutea (parekidetasuna, kulturartekotasuna, aniztasun funtzionala), euskararen normalizazioa eta eskola kiroleko hurrengo etapetarako prestakuntza ditu helburu. Laburbilduz, GFAk eginiko oinarrizko erreferentzia programa proposamena da. Bestalde, hurrengo etapetarako ere xehetasun berezi batzuk baditu Gipuzkoako eskola kirolak. Hala nola, multikirolak bermatzea (gutxieneko eta gehienezko kirol saio kopuruak zehaztuz) eta kirol eskolen inguruko araudi zehatza. Zirimara burutzen den adin tarteko haurrak kirol eskola batean egoteko eskola kirolean parte hartu beharko dute derrigorrean (GAO, 2017).

Hortaz, EAEko dekretuak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eskola kirola arautzen dute, baina toki erakundearen edo udalerrriaren eskumena da programa zehatza eraiki eta gauzatzea, bereziki ikastetxearena. Zirimara Usurbil herriko eskola kirol programa da, 6.000 biztanle inguru dituen herria, ikastetxe bakarrekoa, Udarregi ikastola hain zuzen.

Usurbilgo haur eta gaztetxoek jarduera fisiko eta kirol ohiturak aztertzeke, eskola kiroleko koordinatzaileak emandako informazioaren arabera, herrian ditugun eskaintza nagusiak honakoak dira:

- LH1-LH4: Zirimara eskola kirola.

- LH5-LH6: futbol eta eskubaloi praktikara mugatzen den eskola kirola.
- DBH-tik aurrera: kirol klubuen eskaintza da nagusi, non futbol eta eskubaloiak arrakasta handiena duten parte hartzeari dagokionez. Horrez gain, esku pilota, atletismoa, judoa, gimnastika erritmikoa, igeriketa eta joko garbia ere praktikatzen dira.

Aurretik aipatu bezala, lan honetan Zirimara eskola kiroleko programa izango da aztergai. Aurten praktikan jarri den proiektua izanik, prozesuaren nondik norakoak eta egungo programaren azalpena egingo dut jarraian.

3.1.ABIAPUNTUA

Zirimara proiektuaren hasiera 2016an koka dezakegu, herriko eskola kirola zalantzan jarri zenean. Aldaketa baten beharra antzeman zen, herriko populazio zabalago bati eta modu integralago batean erantzungo zion eredu bat sortzeko asmoa piztu baitzen. Prozesuak aurrera jarraitzeko talde eragile bat sortu zen, eskola kiroleko hezitzaile, ikastolako irakasle eta aditu talde (jarduera fisiko eta kirol zientzietan adituak, hala nola, genero, inklusio edo metodologia gaietan) batez osatua. Herriko azturen datu bilketa egin eta oinarri teoriko bat osatu zen, momentuko egoeraren hutsuneak agerian uzteko (Zirimara, 2018):

- Ez da inklusiboa, nahiz eta jarduera motorrak izena ematen duten partaideetara ahalik eta gehien egokitzen saiatu.
- Jolasetik kirolerako salto azkarra egiten du eta kirol diziplina gutxi batzuen praktika indartzen da.
- 10 urtetik aurrera lehia-eredua heziketa-ereduari gailentzen zaio.
- Estandarizatutako eta estalitako instalazioetan gauzatzen da. Ziurgabetasuna ez da lantzen.
- 14-16 urterekin mutilen % 34ak eta nesken % 36ak utzi egiten du. 16 urtetik aurrera parte-hartzearen beherakada askoz ere nabarmenagoa dela baieztatzeko hainbat adierazle jaso dira klubuen eskutik.
- Irakaskuntza-estilo gidatua darabilte hezitzaileek. Jolas autokudeatuaren presentzia oso urria da.
- Adinean gora jo ahala, ikasleek eskola orduz kanpoko 'antolatutako jarduera' ugaritan parte hartzen dute (ingelesa, musika, kirola...) eta honek kaleko jolas libre eta autokudeatua nabarmen murrizten du.

- Hezitzaileen profila oso lotuta dago kirolarekin eta beraiek ere gabeziak antzematen dituzte hainbat praktika motorrak jorratzerakoan (naturako jarduerak, kaleko jolasak edo gorputz adierazpenari dagozkienak, adibidez).

Usurbilgo eskola kirolaren inguruko ebaluaketaren ostean proposamen berriaren oinarriak finkatu ziren. Horretarako, Ikastolen elkartetik garatu eta sustatutako aisialdirako dekalogo hartu zen oinarritzat, honakoa dioena (Egibar, 2018):

- *Aisialdia gozamina sorrarazi behar digun unea da, sentipen hori gabe aisialdiak bere zentzu osoa galtzen du. Horretarako aisialdian egiten diren jarduera guztiak LUDIKOAK izan behar dira.*
- *Aisialdia pertsonak aukeratutako jarduera multzoa da. Bere hautuak interferentziarik ez izateko, aisialdia pertsonaren DENBORA SOBERANOA dela bermatu behar da.*
- *Aisialdia testuinguru kultural batean kokatu beharra dago, eta bere baitan dauden adierazpen guztiek badute herri batek historian zehar garatu duen nortasun kolektiboaren aitortza. Ezaugarri honi ETNOLUDILOTASUNA deitzen diogu.*
- *Aisialdia orain eta hemen bizitzen den esperientzia da. Gauzatzen diren jarduerak, beraz, guztiz BIZIPEN-ESPERIENTZIAk dira.*
- *Aisialdiak AUZOLANA garatzeko aukera eskaintzen du. Gauzak elkarrekin egiteak esperientzia pertsonala aberastu egiten du.*
- *Aisialdi horizontala sustatuz, PARTIZIPAZIOA guztion integrazioa bermatzen duen baldintza nagusia da.*
- *Aisialdia bir-ekoizpenerako zein ekoizpenerako esparrua da. Aisialdiaren esparruan gehiegizko planifikazioak ekoizpen berriak blokeatzeko indarra du. SORMENA aisialdian sustatzeko neurriko ekintza-eskaintza behar da.*
- *Aisialdiak pertsonen arteko AURREZ-AURREKO harremana lehenetsi behar du, begi kritikoz aztertu eta erabili behar da esparru digitala.*
- *Aisialdiak pertsona bere OSOTASUNean garatzeko esparrua izan behar du. Osotasun haritik osasun kontzeptua indartu behar da.*
- *Aisialdia ANIZTASUNA onartzen eta sustatzen duen esparrua da. Aniztasuna edozein bizipen-esperientzia aberasteko ezinbesteko kalitate da.*

Lanketa teorikoa egin ostean, 2018an hezitzaileek eredu berria abian jartzeko gogoia adierazi zuten unean aurrerapauso bat eman eta proiektuaren aldeko

apustua egin zen. Horretarako, herriko eragile ezberdinei eta familiei aurkeztu zitzairen proposamena eta kontratazio berriak burutu ziren. Aurtengo ikasturtean jarri da martxan proiektua, errealitate bilakatu dena. Sarreran aipatu bezala, ebaluazio jarrai batean bizi den proiektu honek eragileekin lanketak egiten jarraitu eta mahai tekniko bat osatu du aurten, Zirimararen inguruko erabaki nagusiak adosteko asmotan. Bertan, aurretik aipaturiko talde eragilea, ikastolako arduradun pedagogikoa eta administratiboa, herriko kultur elkarte eta udaleko kirol teknikari eta kultur zinegotzia izango dira, momentuz.

3.2. ESKOLA KIROLEKO EREDU ZAHARREAN EGINDAKO ALDAKETAK

3.1. puntuan aipaturiko helburuak bete ahal izateko zenbait aldaketa eman dira eskola kiroleko programan:

- Ordutegi bikoizketa: astean bi orduko bi saio egiten dira orain, lehen ordu bakarrekoak zirelarik. Zenbait aldaketa lortu dira honi esker:
 - Saioen egituratze berria: harrera, zati nagusia eta lasaitasunera itzulera.
 - Autokudeaketan oinarrituriko metodologiak, esaterako, autokudeatutako jolasen presentzia handitu.
 - Natur inguruneetara (espazio ziurgabeetara) joateko aukera.
- Adin ezberdinen arteko nahasketa sustatu nahian, une askotan elkarrekin egongo dira LH1etik LH4ra bitarteko haurrak, bereziki, saio berezietan (saio osoa nahastuta egiten diren egunak).
- Eskola kirola egingo den ordutegian herriko instalazio eta baliabide guztien erabateko lehentasuna.
- Hezitzaile kopurua igo da bete nahi diren helburuei erantzun ahal izateko.
- Gurasoen parte hartzea eta inplikazioa sustatzeko famili planak antolatzen ditu Zirimarak, normalean asteburuetan, herriko ekintzekin lotura bilatuz.

3.3. 2018-2019 IKASTURTEKO ZIRIMARA

Zirimara LH1etik LH4ra bitarteko eskola kiroleko programa da, eta modu laburrean azalduz, jarraian aipaturikoa egiten da:

- Astean bi orduko bi saio (asteartea eta osteguna) egiten dira.

- Saioen egitura honakoa da: 30 minutuko harrera, 80 minutuko zati nagusia eta 10 minutuko agurra edo lasaitasunerako itzulera.
- Zati nagusia egiteko 7 gune ezberdin osatzen dira: kiroldegiko pista, tatamia, gela balioanitz, psikomotrizitate gela, kanpoko areto futboleko zelaia eta kaleko bi gune. Adin bereko haur taldeak egin eta saio osoa gune batean egiten du talde bakoitzak, saioz saio gunez aldatzen dutelarik.
- Saio bereziak egiten dira noizean behin, ohiko dinamika puskatu eta adinak nahastuta.

Jarraian azalduko ditut Zirimarak dituen helburu nagusiak (Zirimara, 2018):

- Ludikotasun motorraz gozatu.
- Askotariko kirol-joko egitura ezberdinez gozatu, esperientzia motor anitzak eskainiz. Kooperazioa lehiakortasunaren gainetik sustatu.
- Estandarizatutako eraikuntzetan eta kalean egin daitezkeen kirol-jokoez gozatu. Ziurgabetasunaren balio hezitzailea indartu.
- Aisialdia autokudeatuz (bakarka zein modu kolektiboan) gozatu.
 - Ikaskuntza edo gozamen partekatua (asamblearioa, taldean hautatzen ikasi, negoziazioa, liskarrak kudeatu, elkarrekin adostu).
 - Aisialdiaren ikuspegi edo eredu ezberdinez hausnartzeko jarduerak jarri eztabaidagai moduan, denok ez dugu modu berean gozatzen.
 - Autonomia, autoikaskuntza, ardura ... sustatu.
 - Ikasleen barne-motibazioa indartu.
- Urtaroaren araberako aukerez gozatu.
- Bertako kirol-joko tradizionalerik gozatu (kultur-ondarea) eta Usurbilgo egungo kulturantzaz eratorritako praktika ludikoez gozatu.
- Bakarrik, lagunekin, familian eta herritarrekin jolastuz gozatu.
- Joko-jolasak landu gizarte balioak sustatzeko, aisialdiaz gozatzeko beste eredu batzuk landuz eta inklusioa ardatz izanik. Horretarako:
 - Norbanakoaren diferentziak errespetatu eta ospatu.
 - Errekonozimendurako banaketa justua eta ekitatiboa burutu.
 - Norbanakoaren potentzialaren esplorazioa sustatu.
- Beste diziplina batzuekin hartu-emanen gozatu, hala nola, kantua, ipuinak, pintura ...

Helburuetan ikus dezakegu autokudeaketan oinarrituriko metodologiari garrantzia eman nahi zaiola. Hau lortzeko ekintza eta dinamika ezberdinak abian ditu Zirimarak:

- Feria izeneko saio motak daude. Saio hauetan, postu ezberdinak dituzte haurrek aukeran, bakoitzean jarduera ezberdinak daudelarik. Norberak gustuko duen jarduera egiteko aukera izango du saio horretan. Saioaren koordinazio egoki bat lortzera bidean, hautatutako postuan 15 minutu egongo dira haurrak gutxienez, denbora hau pasatzean aldaketarako aukera emanaz. Haurrek gune berean errepikatzeko aukera kopuru bat izango dute, jarduera ezberdinak egin ditzaten eta postuetan haur kopuru antzekoak egoteko. Urtean zehar eginiko saio hauek positiboki ebaluatuak izan dira, bai haurren zein hezitzaileen partetik. Koordinazio aldetik bideragarriak izan dira eta haurren erabaki hartzeak libreki burutu dituztela uste da.
- Kaleko jarduera autokudeatuak egin ohi dira. Herriko txoko ezberdinetan burutzen dira saio hauek. Bertan, hurrekin bildu eta asanblada bidez egunean bertan egingo den jarduera erabakitzen da. Haurrek ezagutzen duten jolas bat, hezitzailearen proposamenetako bat edo momentuan sorturiko jolasak egin ohi dira.
- Jolas autokudeatuari ere garrantzia eman dio Zirimarak. Harrera momentuan material anitza banatzen dute hezitzaileek kiroldegiko pistan eta haurrek libreki erabaki dezakete zer egin.

4. MARKO TEORIKOA

Eskola kirolak haurren garapen integralean izan dezaken garrantzia handia dela jakinik, hainbat fenomeno kontuan hartu beharko ditugu ahalik eta eskaintza zabal eta eraginkorrena egiteko. Zirimararen kasuan bezala, hainbat lurraldetan ere eman dira aldaketak aipaturikoa lortu nahian, eta horren adibide izan dezakegu Segoviako eskola kirolaren eraldaketa prozesua. Metodologia lehiakor tradizionaletik, espezializazio goiztiarra eta metodologia klasikoa gainditu eta metodologia ulerkorra garatzera igaro dira, karga kognitiboa duten ariketen hautaketa egokia eginez eta erabaki hartzeak bultzatuz. Gainera, baloreen garapenaren garrantzia azpimarratzen dute, hala nola, arauen gauzatzea eta errespetua, joko garbia, genero ezberdinen partaidetza sustatzea, hezkidetzak, jarrera ez lehiakorra, elkarbizitza eta harremantze positiboak. Bestalde, aniztasuna

ospatu eta inklusioa lortzera bidean lan egiten dute, ikasle bakoitza bakarra den momentutik, bere beharrei erantzuten saiatuz (Carter-Thuillier, 2017).

Hezkuntza programetan etengabe aipatzen da ikaslearen parte hartzea, autonomiaren garapena, ardurak hartzea eta inizatibak garrantzia izan behar duela. Hau jakinik, bere buruaren jabe izango den komunitate bat sortzeko tresna edo metodo eraginkor baten beharra nabaria da, gorputz hezkuntzan zein eskola kirolean aplikatu ahal izango dena. Hala ere, egungo ereduetan erabaki hartze "hoberenak" eskuratzeko irakasle edo adituek bideraturiko laguntzak bidea kendu die ikasleen ikasketa prozesuaren inguruko erabaki hartzei (Martos, Torrent, Cardo, Saiz, eta Tamarit, 2014; Murillo, 2012). Honi bide emateko, autokudeaketaren fenomenoan sakonduko dut jarraian.

4.1.ZER DA AUTOKUDEAKETA?

Autokudeaketa, auto "norbera" edo "nor bere kabuz" eta kudeaketa "administratzea edo zerbait lortzeko harturiko ardurak" bezala definitzen da. Autokudeaketa beraz, norbanakoak edo talde batek berezkoak dituen interesak identifikatu eta defenditzeko edo praktikan jartzeko prozesua da, plangintza eta demokrazia parte hartzaile bat garatuz eta behar den heinean beste talde batzuen interes eta ekintzekin koordinatuz. Akordioan oinarritutako kudeaketa bezala definienezake, non komunitate honen parte hartzaile diren guztien ikuskerak eta balioak kontuan hartuko diren. Prozesu autoritario baten aurkakotzat jo dezakegu, kanpoko eragile baten kontrolik behar ez duen gobernatzeko modura, barne erregulazioan oinarritua (Murillo, 2012).

Eguneroko bizitzarako garrantzitsuak diren ikaskuntzak eskuratuko dira fenomeno honen bitartez, hau da, bizitza "errealerako" interesgarriak izan daitezkeen balioak barneratzeko aukera handia ematen du autokudeaketaren fenomenoak (Usabiaga, 2018). Hezkuntza esparruan aplikagarria dela uste da, haurraren behar ezberdinei erantzuten baitio, hainbat onura eraginez (Lorente eta Joven, 2009):

- Barne motibazioaren beharra: Frogatua dago ikasketa prozesuari errazago eusten zaiola motibazioa barnetik datorrenean eta ez kanpo faktoreetatik. Beraz, ikasteko gogoia dagoenean ikasten da benetan, horretarako erabakitzeko eskubidea gakoa izanik. Hezitzailearen ardura izango da barne motibazio hau piztea, eta autokudeaketa edo negoziazio programen bitartez

hau lortzea errazagoa dela ikusi denez, komenigarria ikusten da aplikatzea. Autokudeaketa programa ezberdinetan ondorioztatu da ikasleek irakaslearen rola izan dutenean motibazioa areagotu zaiela, nahiz eta erronka erraza ez izan, euren nahien arabera saioak aurrera eramateko aukera baitute. Barne motibazioaren pizgarri honek eta egiten dutenaren interesa gehitzeak ikasleak zoriontsuago izatea eragingo du (Lorente et al, 2008).

- Autonomiaren garrantzia: Freireren (1998) hitzei jarraituz irakastea ez da jakintza transferitzea, jakintza eraikitzeke baliabideak sortzea baizik (Lorente eta Jovenen lanean aipatua, 2009). Autonomo izateko hezteko askatasun egoera ezberdinak sortzea da, erabaki hartzeen garrantzia eta ardura azalerratuz. Honako gaitasunak ematen dizkio autonomia lantzeak pertsonari (Lorente eta Joven, 2009):
 - Norberak bere burua gobernatzeke aukera izatea.
 - Iritzi ezberdinak eztabaidatzeko eta onartzeko egoerak sortzea.
 - Barneratuak dauden funtzio instituzionalen ardura ematea.
 - Harremantze giro aberatsa sustatzea, pauta egonkorak zehaztuz eta guztiak onartuak direla sentiaraziz.

Autodidakta izateke aukera eskaintzen du, bere kabuz ekiten ikasteko, interesatzen zaion hori identifikatu, proposatu eta praktikatzeko. Emantzipazioa indartuko du norbanakoaren autonomia lantzeak (Usabiaga, 2018).

- Taldean harremantzeko beharra: Bizi garen errealitate aldakor honetan moldatu ahal izateke ez da nahikoa gaitasun indibidualak garatzearekin, sekulako garrantzia dute gaitasun sozial eta moralek ere. Horretarako, interdependentziara urratsak ematea izango da helburua. Pertsona interdependentteek indarrak batzen dituzte helburu komunei aurre egiteke. Beraz, independente izanik, modu interdependenttean bizitzean dago gako (Lorente, Gatell eta Joven, 2008). Autokudeaketa programek enpatiazko jarrerak areagotuko dituzte, esaterako, irakaslearekiko, ikasleak bere rolean jartzen diren kasuetan (Lorente eta Joven, 2009). Gainera, ikaslea eta hezitzailea gerturatuko ditu, maila berean jarriz. Honek partaideen arteko bizikidetzak hobetuko du, irakaslearen autoritatea murriztuz eta taldea indartuz (Murillo, Prados eta Jimenez, 2015).

- Hausnarketa eta autokritika gaitasuna: Ikaslea modu aktibo batean parte hartzen hasiko denez saioan gertatu ohi diren injustiziak ikuspegi kritikotik aztertu eta eraldatuko ditu. Gainera, gorputz hezkuntzaren kontzeptua zabaldu zaie, beste lanketa batzuk egiteko aukera dagoela ikusiz. Edukiak ere garrantzia izango du, esaterako, gaitasun fisikoak modu autonomo batean landuta, gerora, eskolaz kanpo ere ikasleek ohitura horiek izan ditzaten (Lorente eta Joven, 2009). Ikasleak azaltzen dutenaren funtzionaltasunarekiko kontzienteago dira, irakasle rola duten kasuetan bereziki (Lorente et al., 2008).
- Emozioen askatzea: Prozesu autokudeatuetan ikaslearen ahotsak garrantzia izango du, hortaz, askatasunez hitz egin, jardun edo jolastu-jokatu, emozionatu, sentitu eta erabakitzen lagunduko du (Usabiaga, 2018).

Fenomeno honek eragin ditzaken onuren jakitun, praktikara jotzean hainbat zalantzarekin topo egin ohi da Lorente eta Jovenen (2009) ikerketan nabarmen ikus daitekeen modura. Denbora falta faktore garrantzitsuenetako bat da, irakasleak saioa prestatzeko duen denbora urriaz gain, ikasleek mugimenduari denbora kenduko dion edozer denbora galtze modura ikusten dute, hitz egiten jokatzen jardun beharko luketen denbora pasatzen dutela esanez. Gainera, adostasun falta dagoen egoeratan hau areagotu egiten da. Aurkituriko beste arazo edo oztopo bat ikasleak aginte zuzenera duten ohitura izan da. Honen ondorio garbia da liskar egoeratan epaile baten beharra ikusten dutela, beraien kabuz konpontzea baino errazagoa dela pentsatuz. Bestalde, ikasleek negatiboki baloratu dute irakasle rola izan dutenean bizitako deskontrol, ziurgabetasun, inpotentzia edo errekonozimendu eza. Gorputz hezkuntzako saio ezberdinetan ikertu eta ondorioztatutako ideiak dira honakoak, baina testuinguru bakoitzean aldakorrak izan daitezke oztopo hauek.

Azaldutakoaren harira, ikusi da prozesu berri bat planteatzeak onura zein arazo berriak ekarriko dizkigula eta kasu hauetan aldaketarekiko erresistentzia egingo duten pertsonak topatuko ditugula (Martos et al., 2014). Horregatik, prozesu autokudeatua eraginkorra dela ziurtatzeko hainbat berme kontuan hartu beharko genituzke (Lorente eta Joven, 2009; Martos et al., 2014):

- Ikasleek gaitasun minimoak dituztela jakin beharra dago, hala nola, autokontrola, empatia gaitasuna eta besteekiko errespetua, entzuteko

gaitasuna eta kritika eraikitzaileak egiteko gaitasuna. Komunitateak gaitasun hauek ez baditu, lanketa bat egin beharko da hau lortzera bidean.

- Kolaboraziozko giro bat sortzea ikasleek proiektua bere sentitu dezaten. Modu honetan, onarpen, empatia eta gertutasuneko harremanak sortu ahalko dira. Beraz, autokontrola, errespetua eta empatia bezalako baloreak indartuko dituen giro kooperatibo baten beharra nabaria da.
- Ikasleak inplikatu beharra du. Horretarako baliagarriak izan daitezke ikaskuntza kooperatiboak, interdependentziak areagotzeko.
- Hezitzaile motibatu eta laguntzailea, prozesuan sinetsi behar du. Dinamiketan gogotsu parte hartuko du, entzuten, eztabaidatzen, gidatzen, ardurak eman eta errespetatzen.
- Saioak autokudeaketan oinarrituak badira ebaluazio sisteman ere prozesuak garrantzia izatea garrantzitsua izango da. Hortaz, autoebaluaketak pisu handia izan beharko du.

Gure proposamena txertatzen joateko ere momentu egokiak noiz diren identifikatzea garrantzitsua izango da. Horretarako, aurretik aipatu ditudan puntuek markatuko dute prozesuaren intentsitatea, baina ekintza zehatzetan hasi gaitzke autokudeaketa erabiltzen, hala nola, joko-jolasen proposamenean, saioen hasiera zein amaieran, liskarrak konpondu behar direnean edo talde batzarrak beharrezkoak direla uste denean (Usabiaga, 2018):

4.2. HEZITZAILEAREN FUNTZIOA

Prozesuaren eraginkortasunean hezitzailearen funtzioak duen garrantziaz ohartu ostean, honen inguruan sakontzeko puntu bat eskaintzea komenigarria iruditu zait. Hezitzaileak hautatutako estrategiaren arabera ezberdina izango da liderazgo estiloa, parte hartzea ulertzeko modua, lan-giroa eta ikaskuntzaren garapena (Usabiaga, 2018). Tradizionalki irakaslearen aginte zuzena izan da taldea gidatu eta zuzendu duena, EAEko hiru Foru Aldundiek "Asmoz" fundazioaren laguntzaz eskaintzen duten hezitzaileen formakuntza ikastaroan aipaturikoa ikusi besterik ez dugu, non hezitzaileari autoritatea eskatzen zaion, uneoro haurrei zer egin eta nola egin behar duten esateko, haurraren eredu izateko eskatuz (Fernandez de Larrinoa, d.g.). Lorente eta Jovenen (2009) ikerketa lanean ere ikasleek liskarrak konpontzeko epaile baten beharra ikustea horren adibide dugu, autoritarioa den figura baten beharra izatera ohituak daudela agerian utziz.

Atal honetan hezitzaileak landu beharreko edukiak aurkeztu baino nola landu behar dituen azaltzean zentratuko gara. Metodologia hau aurrera eramateko gai izango den hezitzailea gatazka sozialen aurrean modu intentzionatuan eraldatzeko jarrerak dituen izango da (Lorente eta Joven, 2009).

Bidean laguntzea pertsonen eta taldeen garapen prozesuan funtsezko dimentsiotzat hartu ohi da. Bidelagun izatea faktore indibidualak eta testuingurukoak kontuan hartuta ikasleekin negoziazio prozesu bat eramatea da, pertsonen hezte eta garapen prozesuan sekulako garrantzia duen fenomeno bat izanik. Ikaskuntza integral bat lortzeko ezagutza funtzionala izatea nahi badugu, bizipen eta inplikazio sozial batekin konektatua egon behar da. Gainera, partekatutako proiektu batekin egitea lortzen bada, harremanen lanketa handiagoa egingo da (García-Pérez eta Mendía, 2015). Aipaturiko bidelagun rola bermatu ahal izateko hainbat alderdi kontuan hartu beharko ditugu (García-Pérez eta Mendía, 2015; Lorente eta Joven, 2009; Martos et al., 2014):

- Autokudeaketan oinarrituriko metodologia aurrera eramateko bermeak ziurtatu beharko ditu hezitzaileak, testuinguru aproposa ahalbidetuz: batetik, espazio zein denbora faktoreei dagokionez (gune atsegina eta presaka ez ibiltzeko nahikoa denbora), eta bestetik, errespetuzko eta kolaboraziozko talde giroa dagoela ziurtatuz.
- Negoziazioa eta adostasuna ikasleari zer eta nola ikasi nahi duenaren inguruan erabaki hartzeko eskubidean datza. Honek ez du esan nahi ikasleak nahi duena egingo duenik, hezitzaileak eskaini edo uka dakioket aukera. Ikasleak pasibo izatetik aktibo izatera pasako diren eredu bat sustatu nahi da, non beraien kritikotasuna, jakintza eta protagonismoa indartuko den.
- Haurren inizatiba eta autonomia bultzatzeko baliabide erakargarriak bilatuko ditu hezitzaileak, hezitzaile-ikasle konexioa indartuz.
- Ikasleak akatsak egingo dituztela kontuan izan behar du, honen aurrean lasaitasunez eta naturaltasunez jokatu behar du hezitzaileak.
- Aktiboki sustatu eta aztertzeko ardura izango du, hezitzailearen motibazioak sekulako garrantzia du.

Hezitzailearen funtzioa ez da erraza prozesu honetan, zenbait beldur eta egonezinei aurre egin beharko dielarik. Autoritateari uko egin beharri lotuta doaz kezka nagusiak. Alde batetik, boterea eta protagonismoa galtzea eragingo du

eredu honek, hezitzaileak kontrola gal dezakeela pentsatuaraziz. Honen harira, ikaslearen maila berean egoteagatik ikasleek nahi dutena egingo dutenaren beldurra egon daiteke, irakaslea beraien nahietarako erabiliz edo beti nahi duten jarduera egin ez, esaterako, beti futbola egitea. Kanpo iritziek ere kezkatu ditzake hezitzaileak, beraien lana antolaketa falta edo utzikeriarekin lotu baitaitezke (Usabiaga, 2018). Gainera, zalantzak sortu ditzake aurretik osotasunean programatu ezin daitekeen metodologia bat abian jartzeak, ostean gainkarga bilakatu daitekeelakoan. Horri aurre egiteko hezitzailearen prestakuntza eta egoera berriei aurre egiteko baliabideak funtsezkoak izango dira, baita kargak neurtzea ere, horretarako presaka ibiltzera behartzen ez gaituzten dinamikak sustatuz (Martos et al., 2014).

4.3. LISKARREN EBAZPENA

Aurrera eraman nahi dudana metodologia momentu eta gertaera ezberdinetan aplikatu beharra dago errealia izan dadin, hortaz, baloreen garapenean oinarrituriko eskola kirol bat lortu nahi bada, funtsezkoa izango da liskarren ebazpenean ere arreta jartzea. Izan ere, kohesiozko klima bat sortu arren, elkarbizitzak berak liskarrak egotea dakar. Hortaz, liskarrak giza harremanen elementu naturalak dira, elkarbizitzarako beti kontuan hartu beharko ditugunak (Monzonís, 2015).

Egoera egonkor batetik abiatuta, liskarra gure pentsatzeko erarekin bat ez datorren errealitate gisa bizi da, eta gure eredu afektibo, kognitibo eta portaerazkoak birlantzen ditu aurreko ereduarekiko bateragarriak ez ziren fenomenoak txertatuz (Vizcarra, 2004). Liskarrak kognitiboki zein afektiboki garatzeko beharrezkoak direla jakinik, hezitzailearen baitan egongo da egoera hauek ikaskuntza prozesu gisara ikustea eta modu sortzaile eta positiboan bideratu eta erregulatzea. Hala ere, gatazkaren eraldatze hau eman ahal izateko beharrezkoa izango da tolerantziazko klima bat sortzea ikasleek ere hausnarketarako eta ikasketarako prozesua izan daitekeela ikus dezaten (García-Hierro eta Cubo, 2009). Modu honetan, hezitzaileak izan daitezken portaerak eragingo ditu liskararen ebazpenak (Vizcarra, 2004):

- Besteen sentimenduak ezagutzea liskar baten aurrean.
- Besteei ulertzea.
- Besteen ideiak eta jarrerak errespetatzea.

- Gainontzekoek uler gaitzaten saiatzea.
- Adeitsua izatea.
- Barkamena eskatzea.
- Soluzioak bilatzea.
- Liskarrak ekiditeko besteekiko pentsaera desegokiak ekiditea.

Nahiz eta liskarrek gure garapen eta ahalduntzean garrantzia izan, prebentzio lana egitea ongi dator, eta horretarako elkarrizketa gaitasunei eta errespetuari sekulako garrantzia ematen die, besteak beste, irribarrea, aurkezpena, goxotasuna eta elkarrizketa bat hasi, mantendu eta amaitzeko gaitasuna, ikaskuntza prozesuan landu beharrekoak direla azpimarratuz (Vizcarra, 2004).

Aldiz, gatazka bat ez da beti modu eraikitzailean ebazten. Liskarraren erantzuna oldarkorra denean, nahitako eraso fisiko, hitzeko edo psikologikoa ematen da, biolentziara iritsiz eta talde kohesioa apurtu eta plano pertsonalera joz (Trianes eta Fernández-Figares, 2001).

Liskarraren konponketa ezberdina izan daiteke, hala ere, D'Zurilla eta Goldfriendek (1993) fase hauek bereizten dituzte eta aurrerago egingo duan proposamenen kontuan hartzekoa dela uste dut (Vizcarraren tesian aipatua, 2004):

- Arazoan zentratzea: arazoaren hautematea, gertatzen den egoeran kokatu. Arazoaren eskuduntza eta balorazioa. Konpromezua eta esfortzua.
- Arazoa ongi definitu eta formulatzea: gertaeren informazio bilketa, gardentasuna, soluziorako helmuga erreal bat finkatu, arazoaren dimentsioa birplanteatu gure ongizatean duen eraginerako. Arazoaren aurretiko diagnostikoak garrantzia handia du, liskarra izan duten pertsonak ezagutu eta arazoak topatzeko. Horrek ez du esan nahi aurreiritziekin jokatu behar dugunik, liskarra izan dutenak entzutea izango da lehen urratsa.
- Konponbide alternatiboen orokortzea: soluzio alternatibo ezberdinak maneiatu, ideia ezberdinen artean kalitate hobegoko soluzioa lortuko da.
- Erabaki hartzea: soluzioa ebaluatu eta burutzeko plana prestatu.
- Burutzea eta burutzearen egiaztapena: autobehaketa gure emaitzaren portaeretan, autoevaluazioa esperotakoarekin, autoerrefortzua. Emaitzak ez bagaitu asetzen, behar diren aldaketak egin.

Fase hauek kontuan hartu behar diren arren, gatazkaren konponketa modu ezberdinetan eman daiteke. Beraz, hezitzaileak proposa ditzakeen aukera anitzen artean hauek nabarmenduko genituzke (Lorente 2009; Murillo eta Liso, 2017; Vizcarra, 2004):

- "Time out": izeneko hausnarketa uneak planteatzea, jokoan haserrealdi bat egonez gero jokalaria kanpora irten, lasaitu eta jarrera aldatzeko aukera emateko.
- "Soluzioen bankua": arazoei irtenbideak topatzeko mahai bezala proposatzen ditu, hezitzailea bidelagun izango delarik.
- "Kirolarien tribunala": partaide gehiago egongo dira kasu honetan, soluzioen bankuak funtzionatu ez duen kasuetan burutuko da.
- "Emergentsia plana": soluziorik egon ezean zortera jotzea.
- "Aginte zuzena": irakasleak autoritate osoz liskarraren erantzule bilakatzen da.
- "Asanblada dinamikak": gatazkak kolektibizatu eta taldearen autokudeaketaz ebazteko proposamena.
- Beste jarrera batzuk: ez ikusiarena egin edo bazterketa.

Lorente eta Jovenek (2009) proposaturiko asanblada dinamiketan irakaslearen autoritatea murriztu nahi da, epaile figura ezabatuz eta taldea indartu nahian. Ikasleak izaten dira ebazteko arduradunak, liskarrak talde ikaskuntzarako esperientzia bikainak bilakatuz eta ikasleek erabaki hartzeen botere eta ardura partekatzen dute, demokrazia parte hartzaile batean bezala (Murillo, Prados eta Jimenez, 2015).

Gatazkak kolektibizatzearen eta guztion artean ebaztearen prozesu honetan zenbait pauso jarraitzea komenigarria da asanblada egonkorra izan dadin. Beraz, ikasleei liskarren autokudeaketarako tresna hau ongi aurkeztea eta identifikagarri egitea garrantzitsua izango da, Murilloren ikerketan burutu zuten modura (Murillo eta Liso, 2017):

- Zirkulu bat eginez aurkeztea komenigarria, hasieratik identifikagarria izan dadin. Gainera, asanbladak egitura honetan burutzeak guztion parte hartzea erraztuko du.
- Zer den definitu: taldearen funtzionamendua guztion parte hartzetik sustatuko duen dinamika, liskarren ebazpena ere hemen kokatuko genuke. Irakaslearen funtzioa zehaztu eta akatsak egiteko eskubidea bermatu.

- Hezitzailearen rola azaldu, bideratzaile funtzioa izango duela adierazi. Errespetuzko giro bat egon dadin eta adostutako arauak bete daitezen lagunduko duela azalduko du, baina guztion ardura ere badela ohartaraziz.
- Noiz eta nola egingo den zehaztu: ikasle batek liskar bat izan duela identifikatzean plazaratu egingo du, eta arazoa izan duenarekin konpontzen saiatuko da. Arazoa konpontzeko gai ez badira guztion arazo bilakatuko da, asanbladaren beharra egongo delarik. Gelako adibideak jartzeak errealago egingo du azalpena.
- Gatazka kolektiboen konponbiderako tresna izango dela garbi utzi beharko dugu, horretarako gatazkak kolektibizatzearen hausnarketak egiten joan beharko gara.

Aipaturikoa asanbladaren aurkezpenari dagokio, baina egunerokotasunean izango duen funtzionamendua konplexuagoa da. Taldearen joerak aldatuz joango dira eta bizipenak ere ezberdinak izango dira, beraz, asanbladak taldearen beharretara egokitu beharko du, jarraian aipatuko diren alderdiak kontuan hartu beharko direlarik (Lorente eta Joven, 2009; Murillo eta Liso, 2017):

- Familiarizazio fasean irakasleak asanblada arautzea normala izango da, pixkanaka bidelagun izateko joera handiagoa hartuz.
- Moderatzailearen beharra taldearen araberakoa izango da. Rol banaketa bidez aukeratuko da moderatzailea edo eguneko arduraduna. Zirkulu erditik hitza emango du moderatzaileak. Ikasleek rol ezberdinak bizitzeko aukera izatea interesgarria izango da. Asanblada deitzeko beharra guztion ardura izango da.
- Dinamika desegokia bada, esaterako, txandak errespetatzen ez direnean asanbladatik alboratzeko aukera kontuan hartu daiteke. Desadostasun momentuetan irakasleak kargu hartzea errazena dirudien arren, momentu hauetan da bereziki garrantzitsua autokudeaketa indartzea.
- Asanbladaren inguruko autoebaluaketak egitea komenigarria izango da, taldearen beharretara ahalik eta hoberen egokitzeko.

Esperientzia eta ikerketa ezberdinak burutu dira dinamika honen inguruan eta hainbat zailtasunekin egin dute topo partaideek (Lorente eta Joven, 2009; Murillo eta Liso, 2017):

- Ikasleek denbora galtze gisa ikusi ohi dituzte asanbladak hasiera batean. Joko denbora murrizten dela sentitzen dute hitz egite hutsagatik. Liskar bakoitzagatik klasea moztu eta gutxiago jokatzeko ez dute gustuko. Honek ondorio positiboa ekar dezake, liskarren prebentzioari dagokionez, kolaboraziozko eta errespetuzko giro baten beharra nabarmenduz. Hala ere, hezitzaileak asanblada kopurua kudeatzen jakin beharko du mugimenduak eta jokoak arloan duen garrantzia galdu ez dezan.
- Asanbladak aurrera eramateko isiltasuna bermatzea eta txandak errespetatzea zaila egin zaie, gorputz hezkuntzako saioak zaratatsuak izatera ohituak baitzeuden. Kooperaziozko giroa bermatzea beharrezkoa izango da dinamika egoki bat izateko eta horretan lagunduko du arauak, edukiak, metodologia eta ebaluazio irizpideak adostek.
- Blokeo emozionalak antzeman dira esperientzia hauetan (hitz egitea ekiditea, besteek pentsatu edo esango dutenagatik), ezberdintasunak onartzeko eta ulertzeko zailtasunak eta honen ondorio den amorrutako jarrerak.

Prozesu erraza ez den arren, dinamika honi jarraikortasuna emanaz eta egoera ezberdinak bizitzeko dira benetako errespetuzko jarrerak ikaskideen artean. Zailtasunei aurre egin ahal izateko behin eta berriz aipatzen dugun konfiantza klima sortzea guztiz beharrezkoa izango da. Gainera, ikasle bakoitzaren jarrera zein arrazoiketarak ematen ari den garapenaren berri emango digu (Lorente eta Joven, 2009; Murillo eta Liso, 2017).

4.4. MARKO TEORIKOAREN SINTEZIA: IKERKETAREN ABIAPUNTUA

Liskarrak ebazteko modu asko daudela ikusita, metodo perfektua zein den zehaztea ez da lan honen helburua izango, autokudeaketan oinarrituriko metodologiarekin bat datorren proposamen bat garatzea baizik.

Liskarrak ikasketa prozesu bilakatuz, Lorente eta Jovenek (2009) proposaturiko asanblada dinamikak hartuko ditut erreferentziatzat. Autokudeaketak eskaintzen dizkigun onuren jakitun, haurren garapenean eta taldearen ongizatean eragingo duela espero da. Hezitzailea prozesuaren bidelagun delarik, konfiantzazko klima bat sortu eta ikaslearen ahotsari garrantzia ematen saiatuko gara dinamika hauen bitartez, haurren emozioak azaleratu eta beraien arteko harreman afektiboak indartzeko (Murillo eta Liso, 2017). Beraz, hau aplikatu ahal izateko interesgarria

izan daiteke Zirimaran liskarrak noiz, non eta zein jardueretan ematen diren, hezitzaileen ildo pedagogikoa zein den eta gatazken konponketan nortzuk parte hartzen duten eta zein prozedura erabiltzen dituzten aztertzea.

5. METODOLOGIA

5.1.SARRERA /DISEINUA

Ikerketa hau burutzeko metodologia kualitatiboa erabili da, Sparkes eta Smithekin (2014) bat eginez, metodologia honek aukera paregabea eskaintzen digu errealitate soziala ulertzeko eta era berean, pertsonen egunerokotasuneko portaerak eta esperientziak arakatzeko. Ildo berean, praktika anitzen bidez mundua ikusgarri egin eta berau eraldatzeko aukera sortzen du (Denzin eta Lincoln, 2011). Esplorazio hau burutzeko liskarrak noiz, non eta zein jardueretan ematen diren ikusi beharko da, baita hauen aurrean bertako partaideek dituzten jokabide motorrak aztertu eta ulertu ere. Zirimarako partaideen, batez ere hezitzaile zein haurren, bizipen eta iritziek sekulako garrantzia izango dute ikerketa honetan, eta horiek ezagutu eta ulertzeko bi teknika kualitatibo erabiliko dira: behaketa ez parte-hartzailea eta elkarrizketa sakona.

5.2.PARTE HARTZAILEAK

Ikerketa honetako parte hartzaileak Zirimarako haurrak eta hezitzaileak izan dira. Behaturiko egunek eragin zuzena izan dute laginketan, izan ere, talde osoa elkartuta eta adinak nahastuta ibili dira azterturiko hiru saioetan. Hau dela eta, egun hauetan egon diren haur guztiak izan dira behatuak. Hezitzaileei dagokionez, guztiak behatuak izan diren arren, gertaturiko liskarretan esku hartze zuzena izan dutenak izan dira hautatuak elkarrizketa sakonak egiteko. Hau honela, bi hezitzaile izan dira elkarrizketatuak.

Inklusio irizpideei dagokionez Zirimaran izen emandako haur guztiak izan dira ikerketa honen parte. Hezitzaileak ere guztiak izan dira behatuak, baina lehen esan bezala, liskarren ebazpenean esku hartu dutenak soilik elkarrizketatu dira.

Ikerketa honetako haurrak LH1-tik LH4-era bitartekoak izan dira. Talde mistoak izanik neska zein mutilak izan dira parte hartzaileak. Astearteetan burututako saioetan 102 haurrek (44 neska eta 58 mutil) parte hartu dute, aldiz, 117 haurrek (41 neska eta 76 mutil) ostegunetan. Gainontzean, aipatu beharra dago ia

haur guztiak herritarrak eta Udarregi ikastolako ikasleak direla, nahiz eta Aginagako, Zubietako zein Lasarteko eskoletan dabilzan gutxi batzuk ere badauden. Bestalde, zazpi hezitzailek eta koordinatzaileak osatzen dute lan taldea. Elkarrizketatuen artean, lehen hezitzaileak kirol munduarekin lotura estua du, goi errendimenduko kirolaria baita eta baita haurren esku pilotako entrenatzailea. Gainera, Usurbilgo eskola kirolean urteak daramatza hezitzaile moduan. Elkarrizketaturiko bigarren hezitzaileak aisialdi munduarekin lotura handiagoa duela esan genezake, eta ez hainbeste kirolekin. Aurten izan du Usurbilgo eskola kirolarekin lehen kontaktu zuzena, urtarriletik aurrera hasi baitzen Zirimaran. Aurretik, aisialdi talde ezberdinetan jardun da, hezitzaile moduan kasu gehienetan.

5.3.DATUAK JASOTZEKO TEKNIKAK

Ikerketa hau aurrera eramateko bi teknika erabili ditut. Gatazken inguruan nik ikusitakoa parte hartzaileek bizitakoarekin alderatu eta osatzeko aproposa iruditu zait behaketa ez parte hartzailea eta elkarrizketa sakona egitea. Modu honetan metodoen triangulazioa egin eta ikerketaren sinesgarritasuna handiagotu nahi izan da.

Behaketa ez parte hartzaileari dagokionez, ikusle moduan burutu ditut behaketak, hortaz, saioan ez dut eragin. Hiru saio behatu ditut eta hiruretan talde guztia nahastua egon da. Lehen saioa kiroldegi kanpoan burutu dute, kiroldegiko futbol zelaian, rokodromoan eta zelai handi batean. Hurrengo bi saioak, Harane futbol zelaian egin dituzte.

Gertatzen diren gatazkak saioaren zein momentutan, non eta zein jardueretan ematen diren aztertu dut. Gune itxietan behaketak egiteko aukerarik izan ez dudanez espazio ezberdinen alderaketa egiteko muga nabarmena izan dut. Aurrera eramaten diren jarduera motak landa oharretan zehazten joatea ere oso garrantzitsua izan da. Gatazkak antzeman orduko, ahalik eta gertuen behatzen saiatu naiz, haurrek zein hezitzaileek dituzten portaerak aztertzeke.

Elkarrizketa sakonari dagokionez berriz, kanpotik behaturikoa eta partaideek bizitakoa ezberdina izan daiteke. Hau dela eta, hezitzaileen bizipenak eta iritziak entzutea beharrezkoa dela uste dut, informazio esanguratsuago eta fidagarriagoa lortuko dudalakoan. Saioan zehar gertaturikoaz gain, tresna honen bitartez hezitzaileek dituzten ikuskerak eta ildo pedagogikoak zehazten saiatuko naiz.

Elkarrizketa egiteko, ondorengo gidoia hartu dut abiapuntu moduan:

- Zer moduz sentitzen zara Zirimaran?
- Zertan ikusten zara ongien? Zein da zure rola edo ekarpena?
- Gatazkak antzeman dituzu saioan zehar? Zeintzuk?
- Zein izan da zure erreakzioa?
- Saioa oztopatu duela uste duzu?
- Beste haurrengan eragina izan du?
- Beste haurrek parte hartu dute konponketan?
- Zein izan da zure helburua interbentzioan?
- Liskarra konpondu dela uste duzu?
- Zertarako balio izan du liskarrak?
- Liskarrak konpontzeko metodo zehatzik duzula uste al duzu? Zein?
- Gai honen inguruan beste zerbait esaterik nahi? Zerk kezkatzen zaitu?

Elkarrizketa hasieran lasaitasuna transmititzen saiatu naiz, horretarako hezitzaileari adieraziz grabaketa soilik lan honetarako erabiliko dudala eta bere oniritzirik gabe ez dudala grabatuko. Era berean, elkarrizketan zehar edozein unetan gelditu dezakegula eta ondoren egingo dudan transkripzioa erakutsi eta aldaketak egiteko aukera egongo dela adierazi diot. Gidoiaren egituraren hasierako bi galderak sarbide erraz bat egiteko pentsatuak izan dira. Jarraian, behaturiko saioetan izandako liskarren inguruan hitz egitea bilatu dut. Azkenik, gaiaren inguruan esan nahi duten beste zerbait esatea ahalbidetu nahi izan dut.

5.4.PROZEDURA

Zirimararekiko dudan gertutasunak asko erraztu dit prozesu osoa. Hasteko, aurtan hezitzaile moduan bi hilabeteko ordezkapena egiteko aukera izan dut eta eztabaida zein bileretan ere parte hartu dut. Behaketak egin ahal izateko, koordinatzailearekin hitz egin da lehenengo eta ikastolaren baimena ere jaso dugu. Elkarrizketetarako hezitzaileek baimen informatu bat sinatu dute. Behaketak 2019ko maiatzaren 2, 7 eta 9an egin ziren. Elkarrizketak aldiz, maiatzaren 14ean.

Anonimotasuna kontuan hartu dugu lan hau burutzeko orduan. Hasteko, behaketetan ez da haur edo hezitzaileen izenik aipatu, ez eta hauek identifikatzeko aipamenik egin ere. Sakoneko elkarrizketen transkripzioan eta ikerketa testuan

zehir ere hau errespetatu da. Ikerketa testuak zentzua izan dezan elkarrizketatuei eta gertatu diren liskarrei kode batzuk jarri zaizkie.

Bakarkako lana izan arren, lan hau egiteko taldean funtzionatu dugu. Tutoreaz gain, beste bi ikaskideren laguntza ere izan dudala azpimarratu nahiko nuke, baita hirurei eskerrak eman ere. Burutu ditugun bilera gehienak taldean izan dira eta bakoitzak bere prozesua partekatu du saio hauetan, elkar laguntzeko asmotan.

5.5.DATUEN ANALISIA

Bildutako datuen azterketa egiteko edukien analisia teknika erabili dut. Horretarako, behaketetan jasotako landa oharrak eta elkarrizketen transkripzioak bildu eta ordenatu ditut. Hau egin ondoren, informazioa gutxienez hiru aldiz irakurri eta lan honetan proposatutako galderekin zerikusia duten zatiak azpimarratu ditut. Zati bakoitza kodigo batekin erlazionatu eta hauen arteko loturak bilatu ostean kategoria eta azpi kategorietan antolatu ditut.

6. EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Emaitzek lan honen hasieran zehaztutako ikerketa galderei erantzun nahi diete. Egindako behaketa ez parte hartzaileetan eta elkarrizketa sakonetan eskuratutako datuetatik abiatuta kategoria eta azpi-kategoriak suspertu dira.

1.taula: Behaketa eta elkarrizketetan jasotako datuetatik eratorritako kodigo, azpi-kategoria eta kategoriak.

Kategoriak	Azpi-kategoriak	Kodigoak
Jokoaren egitura	Hezitzaileak gidatutako jokoak	-Oposiziozkoak eta psikomotorrak. -Memoriadunak eta memoriagabeak. -Txandakakoak eta aldi berekoak. -Lehiadunak eta lehiagabeak.
	Autokudeatutako jolasa	-Askotariko kirol jokoak. -Memoriadunak eta memoriagabeak. -Lehiadunak eta lehiagabeak.
Liskarraren	Espazioa	-Kiroldegiko pista, futbol zelaia eta zelai erdi

ezaugarriak		etxekotua. -Ziurra eta ziurgabea. -Itxia eta estaligabea.
	Saioko momentua	-Atal nagusia -Harrera
	Mota	-Bazterketa -Momentuko haserrealdia -Larria
Ebazpena	Hezitzailearekin	Zuzenean hezitzaileak
		Inplikatuekin
		Inplikatuak eta beste ikasleak
	Hezitzailearik gabe	Inplikatuak
		Inplikatuak eta beste ikasleak

6.1.JOKOAREN EGITURA

Joko edo jolas bat zehazterako orduan eginbeharren araudi bat adostu ohi da. Jokoaren araudiak parte hartzaileak elkarrekintza motor zehatzak egitera baldintzatzen ditu. Beraz, egoera motor ezberdinak sortzen dira jarduera bakoitzean, partaideek dituzten jokabide, bizipen eta emozioak ezberdinak izango direlarik (Parlebas, 2014). Zirimarako saioetan izan diren egoera motor ezberdinak aztertzeko, gidatutako jokoaren eta autokudeatutako jolasen arteko bereizketa egin dut.

Gidatutako jokoak orokorrean kirol jarduerak izan dira, oposiziozkoak eta memoriadunak, hau da, lehiatzekoak. Joko hauetan haurrak oso inplikatuak ikusi dira, jokoan zentratuak eta intentsitate altuan jokatzeko. Irabazi nahia nabaria zen partaide gehienetan, honek sorturiko tentsio eta eztabaidak egon direlarik. Gatazka azpimarragarrikerik gertatu ez den arren, izandako momentuko haserrealdia beraien kabuz konpondu behar izan dituzte, epailerik ez baitzegoen. "Guztiek sinaturiko irudizko kontratua" edo jokoaren araudia errespetatu behar izan dute (Parlebas, 2014).

Kirola ez da berezkotasunean hezitzailea, baina heziketarako potentzial handia dauka, hortaz, helburu ezberdinekin erabili daiteke. Gizartearen islada den heinean, egunerokotasunean topatzen ditugun baloreak azalerraten ditu, gure bizitzako oinarrietako bat baita. Gaur egun, lehian eta arrakasta indibidualean oinarrituriko ereduak dugu nagusi. Eredu honekiko ezberdina den giro bat sortzeko kirol jarduerak burutzen diren testuinguru eta kondizioek sekulako garrantzia dute. Asteaz zehar eginiko saioetan zein asteburuetako topaketetan guraso, lagun eta batez ere hezitzaileek asko baldintzatuko dute aipaturiko testuingurua. Beraz, eskola kirolean bilatu beharreko helburua kirolean hezteak izango da eta ez kirolerako hezteak (Monjas, Ponce eta Gea, 2015).

Bestalde, gidatutako jokoetan txandakako jarduera psikomotorrak ere izan dira, ilara batetik abiatu eta zirkuitu bat egitekoak gehienak. Liskarrak itxaron beharreko uneetan gertatu dira. Jarduera hauetan zein kirol jardueretan hezitzaileek egoeraren kontrola izan dutela nabari da.

Autokudeatutako jolasetan askotariko kirol-jokoak egin dituzte hurrek, hala nola, antzerkia, dantza edo aterik gabeko futbola. Memoriagabeak izan dira jolas gehienak. Beraz, egoera motor ezberdinak sortu diren arren, oso gutxi izan dira lehian oinarrituak. Giro lasaia eta atsegina izan dela ikusi da behaketetan, kirol jardueretan une batzuetan ikusitako tentsioekiko oso ezberdina. Hezitzaileak hurrekin jolasean jardun dira, partaide bat gehiago izango balira bezala. Talde baten artean liskar nabarmena egon da:

“Bi neska eta beste lagun talde baten artean egon zen liskarra. Atzetik datorren gatazka bat da. Nabarmena da taldetxo batek lotura handia egin duela, bi neska hauek nahiko bakarrik utziz. Zirimaratik kanpo ez dute harremanik bi neska hauek eta aipaturiko taldeak. Bi pertsona hauek baztertuak sentitzen dira eta aurreko saioan taldea bat egon zen beraien artean” (2. hezitzailea, 2019).

Lorente eta Jovenek (2009) azpimarratzen duten modura, autokudeatutako jolasek hainbat onura eragiten dizkio hurrari. Barne motibazioan duen eragina hurrek egin dituzten askotariko kirol jokoetan nabari da, norberak nahi zuen jarduera gogotsu burutu baitu. Baita autonomiaren lanketa ere, jolas hauek beraien kabuz proposatu eta aurrera eramane behar izan baitituzte. Gainera, taldean harremantzeko beharra eta emozioen askapena agerian gelditu dira, batez ere, aurretik aipaturiko liskarrean. Bazterketa hau autokudeatutako jolasean gertatzea ez da kasualitatea. Egoera hauetan norberak nahi duenarekin jolasteko

aukera izanik, haurren arteko benetako harremanak eta beraien arteko arazoak azaleratu dira.

6.2.LISKARRAK

Lanaren helburuak zehazterakoan liskarrak non, noiz eta zein jardueretan ematen diren bilatzen nuenez, behin joko egiturak gatazkekin lotuta, espazio eta denbora faktoreak aztertzen saiatuko naiz. Horrez gain, liskarrak zein motatakoak izan diren definitzea garrantzitsua dela iruditzen zait, ebazpenetan eragina izan duen faktorea dela uste baitut.

Espazioaren ziurgabetasunak praktika motorra baldintzatuko du (Parlebas, 2014). 6.1. atalean egoera motor ezberdinek liskarretan eragina izan dutela ikusi ostean, espazioak ere gatazkengan eragina duela pentsa genezake, kasu honetan ere egoera motor ezberdinak sortzen baititu. Behaturiko egunetan espazio antzekoetan burutu dira saioak, futbol zelaietan eta zelai erdi etxekotu batean. Espazio ziur hauetan haurrek egoeraren ezaugarriak aurreikusten dituzte eta ez dago espazioarekiko inongo ustekaberik (Parlebas, 2014). Beraz, ziurgabetasunaren eragina ezin izango dugu egindako behaketen bitartez. Hala ere, harrera unea kiroldegiko pistan egin ohi da, gune itxi eta zaratatsu batean. *"Harrera momentua nahiko gatazkatsua dela esan beharra dago"* (2. hezitzailea, 2019). Bi espazioak ziurrak izan arren, saioak kanpoan edo barruan egiteak eragina duela ondoriozta genezake.

Gatazkak gertatu diren momentuari dagokionez, gatazka garrantzitsuenak saioaren atal nagusian ikusi ditut. Hala ere, harrera momentuan haurrek eguneko tentsioak askatzeko eta elkar zirikatzeke joera dutela antzeman dut. Behaketetan gatazka garrantzitsurik ez da nabarmendu, baina momentu hauetan elkar joka aritzeko ohitura dutela ikusi da. Nahiz eta jolas modura ulertu, beste saio batzuetan gatazka larriren bat gertatu da, esaterako, *"aurreko batean mutiko batek beste bati ukabilkada bat eman zion"* (2. hezitzailea, 2019).

Gatazkak ebazteko erabili diren prozedurak aztertu aurretik, liskar hauek nolakoak izan diren aztertzea komeni da. Horretarako, sailkapen bat egin dut, behaketetan ikusitako eta elkarrizketetan jasotako gatazkak ulertu ahal izateko.

- Bazterketa kasuak:

- 1. liskarra: Txandakako joko gidatu psikomotor batean ilaran itxaroten zegoen haur bat haserretu eta ihes egin du. *"Lagunengandik baztertzeko joera handia du haur honek, ez da gertatzen den lehenengo aldia"* (1. hezitzailea, 2019).
- 2. liskarra: Sei neskako talde batean bi kide baztertuak izan dira, amaieran eztabaida bat izan dutelarik. Hau ere, *"atzetik datorren gatazka bat da"* (2. hezitzailea, 2019).
- Momentuko haserrealdiak:
 - 3. liskarra: Autokudeatutako jolasean porteria batetara jaurtiketak egiten zebiltzan bi haur porteria honetatik tiraka hasi dira.
- Kasu larriak:
 - 4. liskarra: 2.hezitzailearen (2019) kontakizuna da, beste saio batean gertatua: *"behin zubi batetik harri bat bota zioten kotxe bati"*.
 - 5. liskarra: 2.hezitzailearen (2019) kontakizuna da, beste saio batean gertatua: *"aurreko batean mutiko batek beste bati ukabilkada bat eman zion"*.

6.3.LISKARREN EBAZPENEA

Ikerketa honetan bi helburu zehatz nituen liskarren ebazpenari dagokionez: alde batetik, hezitzaileek eta haurrek zein prozedura dituzten aztertzea, eta bestetik, hezitzaileek liskarren ebazpenaren inguruan dituzten ikuskerak ezagutzea.

Gatazken konponketa prozedurak modu ordenatuan aztertu ahal izateko liskarra noren artean ebatzi den kontuan hartu dut. Liskar zehatzez hitz egingo dudanez 6.2. puntuan zenbatu ditudan moduan izendatuko ditut.

Alde batetik, hezitzaileak parte hartu duen ebazpen mota ezberdinak ditugu:

- Zuzenean hezitzaileak ebatziak:
 - 1.liskarra dugu honen adibide garbia. Haurra bere lagun taldearekin haserretu eta ihes egin ostean hezitzaileak berarekin elkartuz soilik ebatzi du gatazka. Haurra lasaitu eta jolasera itzultzeko animatu dio. *"Lagunengandik baztertzeko joera handia du haur honek, ez da gertatzen den lehenengo aldia"* (1. hezitzailea, 2019), baina konponketa soilik berarekin elkartuz egin da.

- Liskarrean inplikaturiko hurrekin batera ebatziak:
 - 3.liskarrean bi haur porteria batetik tiraka zebiltzala hezitzailearen laguntzaz gatazka konpontzea lortu dute. Emergentsia plana izan da hezitzaileak erabilitako estrategia (Vizcarra, 2004), hau da, zozketa bidez konpondu da egoera. *“Haurrak nahiko lasaitu ziren, proposamena onartu eta jolasten jarraitu zuten”* (1. hezitzailea, 2019).
 - 2.liskarra, neska talde batean gertaturiko bazterketa. Hezitzaileak taldearekin bilera ezberdinak eginenez egoera konpontzea lortu da. *“Baztertuak ziren neskekin elkartu nintzen lehendabizi eta ondoren besteekin. Hurrengo egunean bileratxo bat egin genuela adostu genuen”*. (2. Hezitzailea, 2019). Lorente eta Jovenek (2009) proposatzen dituzten asanblada dinamikekin bat dator talde honek erabili duen konponbide prozedura. Guztiak izan dira gatazkaren ebazpenaren irtenbidean partaide.
- Liskarrean inplikaturikoez gain beste hurrekin batera konponduak:
 - 4.liskarra dugu adibide, haur batek errepidera harri bat bota zueneko. Hezitzaileak ahalik eta modu lasaienean taldea bildu eta gertatutakoaz hitz egitea erabaki zuen. Tolerantziatzeko klima bat sortu eta ikasleak hausnarketara bultzatzeak ikasketarako prozesu bilakatu dezake gatazka (Garcia-Hierro eta Cubo, 2009). Kasu honetan ere Lorente eta Jovenek (2009) proposatzen dituzten asanblada dinamiken antzeko prozedura burutu zuen hezitzaileak.

Hezitzaileen laguntza izan arren, hurrek beraien kabuz konponketa prozesuan eragina izan duten ekintzak ere egin dituzte Zirimaran.

- Liskarrean inplikatuak beraien kabuz irtenbidea bultzatzea:
 - 2. liskarrean hezitzailea bidelaguna izan den arren, *“beraiek gogorazitako bilera izan da, saiora etorri naizenean segituan esan didate hitz egitekoak ginela”* (2.hezitzailea, 2019). Lorente eta Jovenek (2009) proposatzen dituzten asanbladetan hurrek asanbladak deitzeko eskubidea dutela jakitea azpimarratzen da. Familiarizazio prozesuan asanblada deitzen duena hezitzailea izaten da. Hurrek deialdia egitea dinamika indartzen ari denaren adierazlea izango da. Beraz, azpimarragarria da gertakizun hau, Zirimaran asanblada dinamika funtziona dezaketela ikus baitaiteke. Aipatu beharra dago

neska talde hau LH4ko ikaslez osatua dela, Zirimarako haur nagusienak.

- Liskarraren konponketa inplikatuak beste haurrekin partekatzea:
 - 5. liskarrean ukabilkadak egon ziren talde batean. Guztien arteko bilera bat eginez ebatzi zuten arazoa, Lorente eta Jovenen (2009) asanblada dinamiken antzeko prozedura baten bitartez. Kasu honetan, beste haurrekin partekatu zuten ikasleek gertatutakoa ikastolako etikako saio batean. *"Zirimaran gertatu zena azaldu zuten ikasleek, guztion artean konpontzea lortu zutela nabarmenduz"* (2.hezitzailea, 2019).

Hezitzaile eta haurrek liskarrak ebazteko prozedura ezberdinak erabili dituzte eta honekin lotura estua du hezitzaile bakoitzak duen ildo pedagogikoak. Hortaz, behaketetan eta batez ere elkarrizketetan jasotako datuetatik ikerketan jarraipen nagusia izan duten bi hezitzaileen ikuskerak honakoak dira:

- 1. hezitzailea: Liskarrak ebazteko estrategia zehatzik ez duela aitortzen du. Gatazka gertatu den momentuan haurra lasaitzeari garrantzia handia ematen dio. Horrela, haurraren emozioak askatzen saiatzen da. Sortutako haserrealdia etetea garrantzitsua dela uste du, berriz gerta daitezken liskarrak ekiditeko batez ere. Ez du ildo pedagogiko zehatzik jarraitzen, baina bere jarrerak haurraren ahotsari garrantzia ematen dietela uste dut. Beharbada, estrategia zehatzak ezagutzeak, asanblada dinamikak esaterako, interbentzioetan dituen asmoak indartzen lagundu diezaioke.
- 2. hezitzailea: Irizpide batzuk jarraitzeko ohitura du. Gatazka izan duen taldea elkartu eta haurrari entzutea beharrezkoa dela dio. Bere iritziarekin eztabaidak bideratzen saiatzen da, baina beti haurraren ahotsari garrantzia emanez. Lorente eta Jovenek (2009) proposatzen dituen asanblada dinamikekin bat datoz puntu askotan bere estrategiak. Gatazka larria dela ikusten duen kasuetan talde guztia elkartu, giro lasai bat sortu eta guztien arteko hausnarketa bat burutzen saiatzen da, Garcia-Hierro eta Cuboren (2009) prozedurekin bat etorritz.

7. ONDORIOAK

Lanaren hasieran aipatu bezala, helburu nagusia Usurbilgo eskola kiroleko Zirimara proiektuan (6-10 urteko ikasleak) egiten diren jarduera mota

ezberdinetan haurren artean gertatu ohi diren liskarrak nola ebazten diren aztertzea izan da, eta honako erantzunak lortu ditugu:

- Liskarrak noiz, non eta zein jardueretan ematen dira? Gidatutako joko lehiakorrak egitean tentsio giroak eta momentuko haserrealdi batzuk sortu ohi dira, intentsitate altuko jarduerak izaten baitira. Autokudeatutako jolasetan aldiz, haurren arteko benetako harremanak azaleratzen dira, giro atsegina nagusitzen den arren, beraien arteko arazoak agerian gelditzen direlarik. Espazio eta momentuari dagokionez, harrera uneak dira gatazkatsuenak, saioaren hasieran eta gune itxian egiten direlako.
- Zirimarako hezitzaileek jarduera fisiko ezberdinetan ematen diren liskarrak ebazteko zein ikuskera dute? Azterturiko lehen hezitzaileak haurrari ahotsa ematea garrantzitsua ikusten du. Hala ere, ez du estrategia edo irizpide zehatzik gai honen inguruan. Bigarren hezitzaileak liskarrak ebazteko irizpide batzuk zehaztuak ditu, asanblada dinamikekin bat datorren ildo baten alde egiten duelarik.
- Gatazken konponketan nortzuk (hezitzaileak eta haurrak) parte hartzen dute eta zein prozedura erabiltzen dituzte? Prozedura ezberdinak eman dira liskar mota bakoitzaren arabera. Momentuko haserrealdietan inplikatuak eta hezitzaileak parte hartu dute eta interbentzioan bertan eteten eta amaiera ematen saiatu dira, kasu larriagok aldiz, taldeko hausnarketak egiteko baliatu dituzte. Asanblada dinamikak momentu zehatzetan erabili dituzte, baina haur eta hezitzaile gehienak ez dira honen jakitun.

Zirimaran autokudeaketa kontuan hartzen dela eta liskarren ebazpenean aplikatzen dela ikusi da, momentu zehatzetan egin diren asanblada dinamiken bitartez. Tresna hau indartzeko eta partaide guztiei ezagutarazteko prozesu bat abian jartzea interesgarria litzake, taldearentzat onuragarria izango den eta funtzionatu dezakeen estrategia dela uste baitut.

Lan honek zenbait muga dituela garbi uztea garrantzitsua da. Testuinguru zehatz batean kokatzen denez, beste eskola kirol proiektuetan emaitza ezberdinak lortzea oso posiblea da. Honen harira, espazio, jarduera eta hezitzaile ezberdinak ezin izan ditut behatu eta galdekatu.

8. APLIKAZIO PRAKTIKOAK

Ondorioetan ikusi da autokudeaketaren aukerak anitzak direla Zirimara proiektuan. Liskarren inguruan eginiko diagnostikoan estrategia hau aplikatzen dela nabarmena da, beraz, hau indartzeko aplikazio praktiko bat egitea interesgarria iruditu zait.

Lorente eta Jovenen (2009) asablada dinamikak hezitzaileen baliabide bilakatzea eta hurrei aurkeztea izango litzake nire proposamena. Horretarako, hezitzaileen artean formakuntza saio bat egitea litzake abiapuntua. Asanblada dinamikaren onurak plazaratu, funtzionamendua azaldu eta egoera ezberdinen aurrean nola aplikatu daitekeen ezagutzea garrantzitsua izango da. Orokorrean puntu hauek jarraituko ditugu hezitzaileei asanblada dinamikak azaltzeko:

- Familiarizazio fasean gidaria izango den arren, hezitzailearen bidelagun rola azaldu.
- Asanblada zein kasutan, non eta nola aurrera eramango den adostu.
- Zailtasunen aurrean dinamika bideratzeko ditugun aukerak ezagutu.
- Liskarrez gain, zertarako erabili daitekeen adostu.

Aplikazio praktikoekin jarraituz, Zirimarak liskarren inguruan behar batzuk dituela uste dute hezitzaileek (1.hezitzailea eta 2.hezitzailea, 2019). Alde batetik, ikastolarekin harreman gehiago izatea azpimarratzen dute, haurren jarraipena hobea izan dadin. Bestetik, liskarrak dokumentatzea interesgarria litzakeela uste dute, modu honetan ebaluazio zehatzagoak egiteko aukera izango luketela uste baitute. Honen harira, nire ikerketaren osagarri izango litzakeen tresna bat proposatzen dut. Behaketa sistematiko bat egiteko aukera emango liguken *Ad hoc* behaketa tresna bat (ikus 2. taula).

Taula honetako emaitzen analisia egiteko azterketa deskribatzailea egin beharko genuke, maiztasunak eta kontingentzi taulak atera eta konklusioetara iritsi ahal izateko. Horrela, liskarren jarraipen zehatz bat egitea posible litzake, hala nola, haurren arteko arazo zehatzak antzemateko, adinak nahasterako orduan arazorik dagoen ikusteko edo sexuaren araberako talkak aztertzeke. Gainera, jarduera mota bakoitzaren eragina sakonki aztertu daiteke. Azkenik, liskarren ebazpenerako haur zein hezitzaileek erabiltzen dituzten prozeduren behaketa zehatzago bat egitea eskaintzen digu teknika honek.

2.taula: Liskarren behaketa sistematikoa egiteko Ad Hoc tresna.

JARDUERAREN EGITURA			GATAZKAREN EZAUGARRIAK				IRTENBIDEA
HARREMANA	MEMORIA	NORK GIDATUA	GATAZKA (zenbatu)	MOTA	SEXUA	ADINA	NORTZUK PARTE HARTU DUTE?
Kolaborazio- oposiziozkoa	Memoriaduna	Hezitzaileak gidatua	1	Hitzezkoa	Neska- Neska	LH1-1	Hezitzaileak zuzenean
Oposiziozkoa	Memoriagabea	Autokudeatua	2	Keinuzkoa	Neska- Mutil	LH1-2	Inplikaturako ikasleak eta hezitzailea
Kolaboraziozkoa			3	Fisikoa	Mutil- Mutil	LH1-3	Inplikaturako ikasleak, beste ikasleak eta hezitzailea
Psikomotorra			...	Hitzezkoa eta keinuzkoa		LH1-4	Inplikaturako ikasleak
				Hitzezkoa eta fisikoa		LH2-2	Inplikaturako ikasleak eta beste ikasleak
				Keinuzkoa eta fisikoa		LH2-3	
				Hitzezkoa, keinuzkoa eta fisikoa		LH2-4	
						LH3-3	
						LH3-4	
						LH4-4	

9. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- 125/2008 Dekretua, 2008ko uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolari buruzkoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. Gasteiz, 2008ko uztailaren 16a, 135.zbk, 18672 or.
- Carter-Thuillier, B., Brunicardi, D. P.; Pastor, V. L., Monjas , R., Manrique, J. C., eta Gallardo-Fuentes, F. (2017). Impacto social y educativo de un programa integral de deporte escolar basado en el modelo comprensivo de enseñanza. *Dilemas Contemporáneos: Educación, Política y Valores*, 4 (3), 1-13.
- Denzin, N. K., eta Lincoln, Y. S. (4. Ed.). (2011). *The Sage handbook of qualitative research*. Sage.
- Egibar, M. (2018). Haurren nazioa. <https://www.guraso.eus/haurren-nazioa/> -tik hartua.
- Fernandez de Larrinoa, I. (d.g.). Eskola Kiroleko monitoreak. 1.modulua: Kirolaren antolaketa eta legeria. Argitaratu gabeko dokumentua.
- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (2017). Jolas hezi:
<http://www.gipuzkoakirolak.eus/eu/jolashezi>
- García-Hierro, M. Á.; eta Cubo Delgado, S. (2009). Convivencia escolar en Secundaria: aplicación de un modelo de mejora del clima social. *Revista electrónica interuniversitaria de formación del profesorado*, 28(12-1), 51-62.
- García-Pérez, A., eta Mendía, R. (2015). Acompañamiento educativo: el rol del educador en aprendizaje y servicio solidario. *Profesorado. Revista de Currículum Y Formación de Profesorado*, 19(1), 42-58 or.
- Lorente, E., eta Joven, A. (2009). Autogestión en Educación Física: una investigación etnográfica. *Cultura y Educación*, 21(1), 67-79.
- Lorente, E., Gatell, E., eta Joven, A. (2008). Experiencias de educación física emancipadora: la negociación del currículum y la autogestión. *Instituto Nacional de Educación Física de Cataluña (INEFC)*, 17.
- Martos, D., Torrent, G., Cardo, V., Saiz, L., eta Tamarit, E. (2014). El desarrollo de la autonomía y la responsabilidad en educación física: Un estudio de caso colaborativo en secundaria. *Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, 26, 3-8.

- Monzonís, N. (2015). La Educación Física como elemento de mejora de la Competencia Social y Ciudadana. Investigación-Acción en torno a la aplicación de un programa basado en la prevención y resolución de conflictos desde el área Educación Física. 32-35.
- Monjas, R.; Ponce, A., eta Gea, J.M. (2015). La transmisión de valores a través del deporte. Deporte escolar y deporte federado: relaciones, puentes y posibles transferencias. *Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, 28, 276-284.
- Murillo Yélamos, J. F. M., eta Liso, M. R. J. (2017). La autogestión de emociones y sentimientos para "ser buenas personas". *International Journal of Developmental and Educational Psychology. Revista INFAD de Psicología*, 3(1), 281-294.
- Murillo Yélamos, J. (2012). Una investigación educativa: La implantación de la autogestión de problemas en educación física (Master amaierako lana). Almeriako Unibertsitatea, Almeria, Espainia. 55 or.
- Murillo Yélamos, J.; Prados Megías, E.; eta Jiménez Liso, M. (2015). Las asambleas de autogestión de problemas en Educación Física. *Campo Abierto*, 34(1), 81-101.
- Parlebas, P. (2014). *Juegos, deporte y sociedades. Léxico de praxiología motriz*. Badalona, Katalunia: Paidotribo.
- Sparkes, A. C., eta Smith, B. (2014). *Qualitative research methods in sport, exercise and health: From process to product*. Routledge.
- Trianes, M., eta Fernández-Figueres, C. (2001). Aprender a ser personas ya convivir. Un programa para secundaria. *Descieé de Brower*. Bilbao.
- Usabiaga O. (2018). Autokudeaketaren aukerak heziketa fisikoan eta eskola kirolean.
- Vizcarra Morales, M. T. (2004). *Análisis de una experiencia de formación permanente en el deporte escolar a través de un programa de habilidades sociales*. (Doktore tesia). Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Zirimara (2018). Zirimararen helburuak.
- Zirimara (2018). 2018-2019 ikasturterako Usurbilgo eskola kirolaren berrantolaketa proposamena

10. ERANSKINAK

10.1. BEHAKETAK

1. eranskina: Behaketa 2019/05/02

Harrerako 30 minutuetan giro zaratatsua eta mugitua. Haurrak talde ezberdinak eginda joko ezberdinak egiten: harrapaketa jolasak, dantzak, uztaiarekin jolasak ... Joko hauen artean borroka jolasak nabari dira, ez da gatazka esanguratsurik eman, baina giro nahasi eta iskanbilatsua dago.

Talde osoa bildu eta eguneko plana azaldu haurrei. Egun berezia, hiru gunek finkatu eta haurrak nahi duten lekura joateko aukera:

1. Futbola: kiroldegiko kanpoko zelaian partida.
2. Eskalada: rokodromoan eskaladako gunek librea
3. Jaurtiketak: ikastola aurreko zelaian jaurtiketa jolas ezberdinak, hala nola, frisbiarekin jokoak, xabalina, uztaiak ...

Hiru gunek gertu izanik batetik bestera mugitzen ibiliko naiz.

1.futbola:

- Parte hartzea handiegia izan denez, bi talde egin behar izan dira, beste gunetara banatu eta ondoren itzultzeko aukera emanaz. Haurrek erabakia onartu dute eta gustura joan dira beste gunetara.
- Nesken parte hartze handia.
- 3 talde osatu dira, bi partida jokatzen eta bestea kanpoan koreografia bat asmatu eta animatzen.
- Partidan zehar errespetuzko jarrerak izan dituzte haurrek.
- Haurrak intentsitate handiz bizi dute jarduera, oso gogotsu ari dira parte hartzen.
- Kanpoan zeudenak hasieran gustura, baina denborak aurrera egin ahala elkarren artea zirikatzen hasi.
- Ez da liskar esanguratsurik gertatu, baina hezitzaileak bertan egon izanak eragin du. Sarearekin jolasten hasi dira eta hezitzaileak moztu egin die, instalakuntzak errespetatzeko eskatuz.
- Nahiz eta partidetan elkarren arteko errespetu faltarik ez egon, tentsioa nabari da zenbait hurrengan partida irabazteko. Gola jasotzean amorru biziz irten dira zelaitik taldeko kide batzuk. Ez zait iruditu besteengan eragin handia izan duenik, momentuko haserre aurpegia besterik izan ez baita.

2. eskalada:

- Oso giro lasaia.
- Koltxonetan daudenez eskaladaz gain batzuk dantza eta itzulipurdiak egiten.
- Jolas librea, hezitzaileak hurrekin jolasean, laguntzaile gisa eskalatzeko momentu batzuetan.
- Ez dut inongo liskarrik antzeman.

3.jaurtiketa gunea:

- Joko ezberdinak zelaia osoan: ateetara frisbi jaurtiketak, frisbia airean harrapatzeko jokoa eta xabalina eta uztai jaurtiketak.
- Joko guztiak psikomotorrak.
- Xabalina, uztai eta frisbiak ateetara jaurtitzea modu librean antolatu dira, haurrak antolatu dira beraien kabuz. Joko ezberdin ugari egiten ari dira giro atseginean.
- Frisbia harrapatzeko jokoa hezitzailea jaurtitzaile eta haurrak ilara batean frisbia harrapatzeko.
- **LISKARRA:** frisbia harrapatzera joateko ilaran haur bat haserretu da lekua kendu diotelako eta ospa egin du zelaiaren alboko kotxeetara. Hezitzailea atzetik joan da berarekin hitz egitera. Ikaslea burumakur eta haserre aurpegiz egon da hezitzailearekin eta minutu batzuk hitz egiten egon ondoren berriz itzuli dira jokora normaltasunez. Hezitzailearen eta haserretu den hauraren artean gelditu da liskarra. Beste hurrek ez dute inongo parte hartzerik izan. Haur honek ihes egiteko joera duela esan dit koordinatzaileak. Nahiz eta ilarakoak bere lagunak izan haserretu eta jarrera hauek izatea oso ohiko dela berarengan.
- Frisbi jaurtiketa libreetan atekin **LISKARRA:** bi haur porteri batetik heldu eta tiraka jarri dira, jaurtitzeko bakoitzak leku ezberdinean kokatu nahi zuelako. Hezitzaile joan da eta lehendabizi liskarra gelditu du hurrei helduz, porteria ez puskatzeko. Materiala zaintzeko eskatu die lehendabizi, ondoren zergatik ari ziren borrokan galdetu eta azkenik alboan beste ate bat zutela esan die. Haurrak adostasun batera iristen ez zirenez zozketa bidezko soluzioa proposatu die hezitzaileak. Hauek harri-orri-ar egin eta onartu egin dute zozketan pasatakoa, galdu duenak beste porteria hartuz.

2. eranskina: Behaketa 2019/05/07

Zirimarako egun berezia gaurkoa ere. Talde guztia elkartu eta harane futbol zelaian burutuko dute saioa. Harrera unea laburragoa izan da, haranera joan eta itzultzeko denbora beharko baitute. Gaur ere haurrak beraien artean zirikatzen dabilta, baina ez da gatazka esanguratsurik gertatu.

Haranen Usurbil futbol taldeko neska kadeteak izan dira joko ezberdinetan dinamizatzaileak. Zelai erdia erabilgarri, bestean futbol entrenamendua.

Postu ezberdinak osatu dira eta haurrak adinaren arabera postu batean edo bestean kokatu dituzte, ondoren postuz aldatzen joateko:

1. Jaurtiketak ate txikietara: bi talde osatu eta beraien arteko lehia gol gehien sartzeko. Jaurtiketak egiteko ilara osatu talde bakoitzak txandaka bota ahal izateko.
2. Zig-zag + jaurtiketa: haurrak ilaran ariketa txandaka burutzeko. Konoen artetik baloia eraman eta atera jaurtiketa bat egitean datza. Jaurtiketa egitean baloia jaso eta ilarara itzuli.
3. Uztaiak bota eta baloiarekin bertara joan: ilaran honakoa ere. Hurrek uztaia eskuekin aurreruntz jaurti eta utzi duten lekura baloia bota, hankarekin kolpatuz.
4. Fitball-ak baloiarekin kolpatzen: Txandaka jaurtiketak futboleko baloiarekin fitballekoa jotzeko.
5. Asto pista: Haur bakoitzak baloi bat izanik leku ezberdinetatik gola sartzen saiatu behar dute.

Haur kopuru handiegia eremu txikian, ariketak aurrera eramateko zailtasunak ilaran gehiegi itxaron behar zutelako. Jolas librea uztea erabaki da.

Jolas librean giro atsegina antzematen da, hezitzaileak hurrekin jolasean dabilta leku ezberdinetan. Haur kopurua oso handia da eta futbol zelaian eta gradetan banatuta daude. Liskar guztiak ikustea ezinezkoa izango zaie hezitzaileei.

LISKARRA: 6 neskako lagun taldean bazterketa egon da bi lagunekiko. Horrela gertatu da prozesua:

- Lagun talde horretako 4 neska ihesean eta ezkutuan ikusi ditut.
- Beste biak beraien lagunak aurkitu nahian zebiltzan, baina ez zekiten non zeuden.

- Ihesean zeuden 4 neska hauek zirikatzen ari ziren oihu egin eta ondoren ezkututzen.
- 2 neska hauek azkenean ohartu dira besteak ihesean zebiltzala eta gradetako txoko batean eseri dira haserre eta burumakur.
- Gainontzekoak hasieran ez dira ohartu, baina konturatu direnean jokoa gehiegizkoa zela beraiengana gerturatu dira hitz egitera.
- Gerturatzean alde egin dute baztertuak izan diren 2 kideak.
- Hezitzaileak liskarraren lekutik oso urrun zeudenez ez dira ohartu gertatutakoaz. Denbora bat pasa ostean ikusi du ohartu da hezitzaile bat arazoaz.
- 6ak elkartu ditu hezitzaileak. Ihesean ibili diren 4 neskek hasi dira hitz egiten, beste biak joka zebiltzala esanez eta horregatik hasi direla ospa egiten. Beste biak ezezkoa eman dute, baina ez dute gehiagorik hitz egin. Hezitzailea epailea izango balitz bezala jokatu dute haurrek, bakoitzak bere bertsioa kontatuz.
- Hezitzaileak jolasteko momentua dela esan du, ez liskarretan aritzekoa.
- Baztertuak izan diren biak burumakur jarraitzen zuten.
- Hezitzaileak ihesean ibili diren 4 neskei joateko eskatu die, beste biekin geratu nahi zuela esanez. 4 horietatik batek geratu nahi zuen, baina hezitzaileak mesedez joateko eskatu dio.
- Hezitzailea bi neska hauekin bakarrik gelditu da eta bakarrik uzteko eskatu die bi hauek. Hezitzaileak hasieran hitz egin behar zutela esan die, baina azkenean akordio batera iritsi dira, 3 minutu bakarrik egoteko aukera izango zutela eta ondoren hitz egin beharko zutela adostuta.
- Denbora hau pasa ondoren futbol zelaitik jaisteko unea zen eta behera jaitsi dira guztiak.

Gainontzean ez da liskar esanguratsurik antzeman.

3. eranskina: Behaketa 2019/05/10

Haranen burutu da saio hau ere. Aurreko egunean leku falta izan zutela ikusita eta gaurkoan haur gehiago izango zirela jakinda zelai osoa eskatu dute. Gune ezberdinak osatu dituzte gaurkoan ere, haur talde bakoitza adinaren arabera sailkatuz.

4. Jolas librea (LH1-2), zelai erdia: material anitza atera dute hezitzaileek eta joko ezberdinak egiten aritu dira haurrak. Dantza, jaurtiketa, porteri txikietan futbol jokoak ...
5. Futbol partidak, zelai laurdenean: LH3koen artena partida bat eta LH4koen artean beste bat.

Hezitzaileak jolas librean egon dira gehienbat. Futbol partida hasi den momentutik haurrak bertan oso sartuta egon dira.

LH3ko taldearen futbol partida intentsitate altukoa dela nabari da. Gogotsu ari dira jolasean. Irabazi nahiak bultzatuta, eztabaida eta haserreak egon dira epaile baten faltan taldean adostu behar zituzten erabakiekin, baina ez da liskar esanguratsurik antzeman. Haserrealdiak momentuan gelditzen ziren eta jolasten jarraitu dute.

Gune librean oso giro atsegina antzematen zen, aniztasun handia. Jolasen artean: dantza ikuskizun bat prestatzen, jaurtiketa librean egiten, aterik gabe futbolekin jokatzeko edo uztaiak jaurtitzen dabilta haurrak. Hezitzaileak oso lasai antzeman dira egoeraren aurrean, haurrekin jolasean.

Saioan zehar ez dut aipatu beharreko liskarrik antzeman.

10.2. ELKARRIZKETAK

4. eranskina: Lehenengo hezitzaileari elkarrizketa.

Hezitzaile hau gizona eta gaztea da, eskola kirolean hezitzaile izandakoa Zirimara hasi aurretik eta baita aldaketaren ostean. Goi mailako futbolaria da eta urteak daramatza hurrekin, bai eskola kirolean zein esku pilotako entrenatzaile modura.

Jon Mikel Azpiazu: Zer moduz sentitzen zara Zirimaran?

Hezitzailea: Oso gustura sentitzen naiz, batez ere, hurrek guregan duten jarreragatik. Atetik sartzen diren momentutik jasotzen gaituzten moduak eta kalean gurekin duten jarrerak bete egiten nau. Bizitzako beste esparruetan ditudan haserreak lasaitzen laguntzen nau Zirimarara joateak, energiaz betetzen nau. Hau da gustura sentiarazten nauena.

J.A.: Zertan ikusten zara ongien? Zein da zure rola edo ekarpena?

H.: Ongien kirol ezberdinak ematen sentitzen naiz: pilota, eskubaloia, saskibaloia, pala edo beste edozein kirol. Hala ere, Zirimarak izan duen aldaketarekin ez gara kiroletara soilik mugatzen, eta niri ere aisialdiko beste esparruetara zabaltzeko aukera eman dit: dantza, kaleko jarduerak ... Konfort egoeratik irteteko beharrezkoa izan da, ezagutzak zabaldu eta beste leku batzuetan ere eroso sentitzeko.

J.A.: Azken hiru saioetan gatazkak antzeman dituzu? Zeintzuk?

H.: Bai, bi gatazka antzeman nituen frisbi jaurtiketa gunean. Alde batetik, bi mutiko porteri batetik tiraka ibili ziren. Bestetik, beste joko batean frisia jaurtitzen ari nintzen eta haurrak txandaka harrapatzen, bertan zegoen ilaran haur bat haserretu eta ihes egin zuen, besteek ilaran aurreratzen ziotelako. Lagunengandik baztertzeko joera handia du haur honek, ez da gertatzen den lehenengo aldia.

J.A.: Zein izan zen zure erreakzioa?

H.: Lehen liskarrean haurrak lasaitu eta porteria askatzeko eskatu nien lehendabizi. Ondoren, txandaka erabiltzera animatu nituen, bakoitzak 4-5 jaurtiketa egin eta gero besteari uztea. Horretarako, lehen jaurtitzaila nor zen erabakitzeke harri-orri-ar bidez egitea proposatu nien. Haurrak nahiko lasaitu ziren, proposamena onartu eta jolasten jarraitu zuten.

Beste kasuan, haurrekin hitz egin nuen zer gertatzen zitzaion galdetuz. Haserre zegoela esan zidan, ilaran aurreratzen ziotelako. Ni lasaitzen saiatu nintzen. Esan nion ilara ez zela beti ordenatua, jaurti ondoren iristen ziren moduan osatzen zela. Animatzen saiatu nintzen, banekielako frisbia ezin harrapatu zebilela, eta bere lagunek ordea harrapatzen zutela. Berriz jaurtiko niola eta ziur harrapatuko zuela esan nion, ilara ondo joango zela esanez. Horrekin lasaitu zen eta jolasten jarraitu zuen.

J.A.: Saioa oztopatu zuela uste duzu?

H.: Haurrak ilaratik ospa egin zuenean besteei ezin izan nien frisbia jaurti eta bitartean itxaroten egon ziren. Porteriarekin ere beraiengana gerturatu nintzen eta frisbia harrapatu nahi zutenek itxaron behar izan zuten. Hala ere, nahiko saio librea zen, material anitza atera genuen jolasteko eta haur bakoitza nahi zuen lekuan zebilen, zentzu horretan ez zuen asko oztopatu saioa.

J.A.: Beste haurrengan eragina izan zuen?

H.: Ilaran zeudenek itxaron behar izan zutelako eragin zuen, ez beste modu batean.

J.A.: Beste haurrek parte hartu zuten konponketan?

H.: Ez, ez zuten parte hartu konponketan.

J.A.: Zein izan da zure helburua interbentzioan?

H.: Nire helburua hitz eginez lasaitzea izan da, momentu horretan izan duten haserrea ez luzatzeko. Batzuetan haserre hori luzatzen da eta beste haurrekin ere liskarrak izateko joera izaten dute edo liskarra handitu egiten da. Beraz, nire helburua lasaitu, arazo hori momentuan konpondu eta beraiek haserre horri buelta ematea izaten da, hortik aurrera gustura jolasten jarraitzeko.

J.A.: Liskarra konpondu dela uste duzu?

H.: Bai, momentuko liskarra konpondu zen eta saioak arazorik gabe jarraitu zuela uste dut.

J.A.: Zertarako balio izan du liskarrak?

H.: Bai, liskarrak baliogarriak direla uste dut. Batzuetan beharrezkoak ikusten ditut talde baten funtzionamendurako edo haur bakoitzak norberak izan behar dituen jarrera onak eta txarrak identifikatzeko. Etorkizunean antzeko liskar

bat gertatuz gero kudeaketa hobe bat izateko balio izango zaie, ikasitako erreakzio hori erabili ahal izateko.

J.A.: Liskarrak konpontzeko metodo zehatzik duzula uste al duzu? Zein?

H.: Ez dut metodo zehatzik, lasaitzen saiatzen naiz, komunikazioa erabiltzen haurrei gertatutakoa ateratzeko eta zer sentitzen duten jakiteko, oso haserre edo negarrez daudenean batez ere. Batzuekin zaila izaten da hau ateratzea, baina komeni da bere sentimenduak kanporatzea. Gainera, beste hezitzaileei behatzea ere gustatzen zait, gustukoa egin zaidan metodoen bat nik ere erabili ahal izateko.

J.A.: Gai honen inguruan beste zerbait esaterik nahi? Zerk kezkatzen zaitu?

H.: Zirimarak ikastolarekin kontaktu zuzenagoa izatea eskertuko nuke, haurren informazio gehiago izateko, hala nola, haurren artean dauden arazoak, bullying kasuak edo haurren batek autismoa edo zerbait berezia duen jakiteko. Guk jarraibide batzuk izateko edo haur batzuen gainean gehiago egoteko baliagarria izango zaigu. Orain arte eskatzen ibili gara, baina oraindik ez da iritsi. Zirimara hartzen ari den indarrarekin honi heltzea ere komeniko litzake.

5. eranskina: Bigarren hezitzaileari elkarrizketa.

Hurrengo hezitzaile hau ere gizonezkoa eta gaztea da. Eskola kirolarekin aurten izan du lehen kontaktua, urtarriletik aurrera Zirimaran hasita. Azken urteetan aisialdi munduan ibili da, gehienbat hezitzaile modura.

Jon Mikel Azpiazu: Zer moduz sentitzen zara Zirimaran?

Hezitzailea: Oso ondo. Ikasturtea aurrera joan ahala hobe, ez soilik haurrak eta aisialdi mundua maite ditudalako, baita gure ekipoagatik, gure artean dugun harremanagatik. Kimika berezia egin dut kaleko jardueretan ibiltzen garenok, hau da, nire arloarekin lotura gehien dutenekin. Besteekin ere oso harreman ona dut, baina antolatzeke orduan batez ere, hobe ulertzen naiz hauekin.

J.A.: Zertan ikusten zara ongien? Zein da zure rola edo ekarpena?

H.: Kaleko jardunetan eta hurrekin dinamizazio eta elkarbizitzan. Ez naiz kirolean aditua, kirola gustatzen zait, mendia eta eskalada esaterako, baina ez du zerikusirik gaur egun eskola kirolean egiten diren kirolekin. Hortaz, ongien nire arloan moldatzen naiz, hau da, jolas ezberdinen proposamenean, jolas parte hartzaileen arloan eta modu honetako dinamiketan. Hala ere, beste gauza batzuetara moldatzen saiatzen naiz, nahiz eta askotan oso eroso ez sentitu.

Nire rola edo ekarpena definitu beharko banuke, kaleko jardueri eta gure aisialdia beste modu batera pasatzeko ekintzei lotua joango litzateke. Ez da besteena baino hobe edo kaxkarragoa, guztion ekarpenek berdin balio dute, talde anitza osatzen dugu eta hori da Zirimarak duen politena.

J.A.: Azken hiru saioetan gatazkak antzeman dituzu? Zeintzuk?

H.: Bi neska eta beste lagun talde baten artean egon zen liskarra. Atzetik datorren gatazka bat da. Nabarmena da taldetxo batek lotura handia egin duela, bi neska hauek nahiko bakarrik utziz. Zirimaratik kanpo ez dute harremanik bi neska hauek eta aipaturiko taldeak. Bi pertsona hauek baztertuak sentitzen dira eta aurreko saioan talka bat egon zen beraien artean.

J.A.: Zein izan da zure erreakzioa?

H.: Beraiekin hitz egitea, beti erabiltzen dudana estrategia hau izaten da. Liskarra gertatu den artean hitz egitea, beti entzuten, entzunak senti daitezela eta gero nire iritziarekin konponbidea alde batera edo bestera eramaten saiatzen naiz. Kasu honetan, baztertuak sentitzen ziren bi neska hauek bakarrik egon nahi

zutela ikusi nuen eta besteei mesedez jolastera joateko eskatu nien, hitz egingo genuela eta gero berriz ere guztiok elkartuko ginela. Horrela egin genuen azkenean, baztertuak ziren bi neskekin elkartu nintzen lehendabizi eta ondoren besteekin. Hurrengo egunean bileratxo bat egingo genuela adostu genuen.

J.A.: Saioa oztopatu duela uste duzu?

H.: Ez, beste umeen jolasetatik kanpo gertatu baitzen.

J.A.: Beste haurrengan eragina izan du?

H.: Ez, ez ziren ohartu ere egin.

J.A.: Beste hurrek parte hartu dute konponketan?

H.: Gatazka izan duen talde osoak hartu du parte konponketan. Gatazka daudenean ez dut inoiz pertsona batean zentratzen gertatutakoa. Kasu honetan, bi neska izan ziren baztertuak, baina talde guztia entzutea erabaki nuen. Normalean liskarra bizi izan dutenen artean konpontzen saiatzen naiz, momentuan dauden hurrekin, zerbait oso larria ez bada, guztion artean hausnartu beharrekoa. Adibide bat jartzekotan, behin zubi batetik harri bat bota zioten kotxe bati. Egun hartan, ez nuen errietarik bota, nire erreakzioa jolasa gelditu eta talde guztia elkartuta hausnarketa sakon bat egitea izan zen.

J.A.: Zein izan da zure helburua interbentzioan?

H.: Helburu garbia izan dut, beraien arteko harremana sustatzea. Beraiei azaldu nien moduan, agian ez momentuan lagunak izatea, ni neu ere ez bainaiz mundu guztiaren laguna, baina besteari ezagutzeko aukera ematen badiot espero ez ditugun lagunak egiten ditugu askotan. Beraz, bilatzen nuena hori zen, beraiek barruan zutena askatzea, bakoitzak pentsatzen zuena esatea eta harreman hori indartzen hastea, hori zen momentuko liskar honi emandako trataera.

J.A.: Liskarra konpondu dela uste duzu?

H.: Ziurrenik luzera begira gatazka behin baino gehiagotan errepikatuko dela uste dut, baina egoera aldatu dela uste dut aurrekoan izandako elkarrizketaren eta gaur izandako bileraren ondoren. Beraiek gogorarazitako bilera izan da, saiora etorri naizenean segituan esan didate hitz egitekoak ginela. Izan duten jarrera honekin errazagoa izan da prozesua aurrera eramatea. Momentu batean hilabeteetan ikusi ez ditudan bezala ikusi ditut guztiak batera jolasean. Ez dira banandu gaurko saio osoan zehar. Bere fruitua eman duela uste dut.

J.A.: Zertarako balio izan du liskarrak?

H.: Harreman hori sortzeko balio izan du. Ekintza negatibo batetik alde positiboa atera dugu, beraz, askorako balio izan duela uste dut. Liskarrik egon ez balitz bananduak jarraituko luketela pentsatzen dut, gaur ez liratekeela guztiak batera jolasean arituko.

J.A.: Liskarrak konpontzeko metodo zehatzik duzula uste al duzu? Zein?

H.: Ez dut estrategia zehatz edo itxirik, baina egia da irizpide batzuk jarraitzen ditudala horrelako gauzak gertatzen direnean. Lehenik beraiei entzutea, askatzen utzi eta beraiek esaten dutenetik zer ateratzen dudan ikustea. Askotan guk momentuan ikusten duguna eta beraiek bizitakoa ez da berdina izaten. Hau egiten saiatzen naiz kasu guztietan, esaterako, aurreko batean mutiko batek beste bati ukabilkada bat eman zion eta burura etorri zitzaidan lehen erreakzioa errieta egitea izan zen, baina ez nuen horrela jokatu. Lasai hitz egiteko asmoz gerturatu nintzen, zer gertatu zen galdetuz. Dardara bat antzeman nuen bere ahotsean, ukabilkadaren atzetik zerbait gehiago zegoela esaten zidana. Berarekin hitz eginda beste mutiko bat ere aurretik jo zutela eta tartean gehiago zeudela jakin nuen. Izenak behar nituela esan nion, arazoa konpondu ahal izateko. Guztiekin bildu nintzen, 10 lagun inguru. Hausnarketa bat burutu genuen, elkarri jotzeko dituzten ohituren inguruan. Liskarrari beraiek eman zioten irtenbidea zentzu batean, harrera unean atera ohi dugun koltxonetak istiluak sortzen zituela esanez. Kentzeko eskatu ziguten eta hurrengo saioetan ez dugu gehiago atera. Harrera momentua nahiko gatazkatsua dela esan beharra dago.

Askotan galdetzen dugu zertarako balio duten hausnarketa horiek momentuan ateratzen dugun haziaz haratago, eta gatazka honetan bereziki nabarmen ikusi nuen eman zuen fruitua. Zirimarako lankide bat ikastolan irakaslea da eta hurrengo egunean ikastolan gertatutako kontatu zidan: KIBA proiektuan aurrera eramaten den etika saio bat zuten ikasleek, bertan bullyingaren inguruko lanketak egiten dituzte maiz. Saio honetan Zirimaran gertatu zena azaldu zuten ikasleek, guztion artean konpontzea lortu zutela nabarmenduz.

Honek gehiago babesten eta indartzen ditu funtzionatzeko ditudan moduak, liskarretan beraiei parte hartzen uztea hain zuzen. Bizi izan dutena kontatzen utzi eta guk nahiz eta pixka bat bideratu, ondorioetara beraiek iristen uztea. Askok esango didate konponbidea nik ere manipulatzeko dudala zentzu batean, ez dakit hau den hitz egokia, baina noski askotan nahi dudana lekura bideratzen dudala

elkarrizketa. Hori ere hezkuntza da, askotan beraiek ez dituzten tresnak ditugu eta elkarrizketaren bitartez irtenbideak ematen saiatzen gara.

J.A.: Gai honen inguruan beste zerbait esaterik nahi? Zerk kezkatzen zaitu?

H.: Ez da kezka handi bat dudarik, baina bai liskarren kontu hau dokumentatzeko beharra ikusten dudala, benetako hausnarketak eta ebaluazioak egin ahal izateko. Zirimara zer moduz doan pentsatzen jarriz gero, ongi edo ez hain ongi erantzungo dizut, izan dudan egunaren arabera edo orokorrean uste dudana esanez. Baina erantzun hauek guztiz subjektiboak dira, ez ditugu datu objektiboak hartzen. Liskar ezberdinak duten garrantzia antzemateko adierazle ezberdinen bitartez ebaluazio bat egin beharko genukeela uste dut. Saio batean izan dudan taldea ez dut berriz izango beste 5 edo 6 saio pasa arte. Gertatutako liskarrak ez baditugu dokumentatzen ezingo dugu jarraipen bat egin ez baitakigu zer gertatzen den beste saioetan. Elkarrizketan aztertu berri dugun liskarrean eragiteko aukera izan dut neska hauekin harreman handia dudalako, baina beste askorekin ez dut harreman berdina eta ziur liskar asko airean gelditzen direla. Adibidez, hezitzaileon artean jasoko bagenuke Juanito eta Pepek gaur hau izan dutela, hiruhileko amaierako balorazioan liskar honen inguruan hitz egiten dugunean saio ezberdinetan zehar zer pasa den jakingo dugu, beharbada, 8 saioetatik 5etan liskarra izan dute edo nirekin izan zuten liskarraz geroztik ez dute inongo arazorik izan.

Honekin lotuta, Zirimarari osotasun bat eta zentzu pedagogiko bat ematera bidean, aditu taldearekin komentatu izan ohi dudan moduan, ebaluazio sistema bat prestatzea beharrezkoa ikusten dut. Ez soilik hezitzaileontzat, haurrek ere ebaluazioan parte hartzeko prozedura baten beharra dugu, baina arratsalde guztia hartuko ez duena.

10.3. BAIMEN INFORMATUA

Ikerketako parte-hartzaileen baimen informatua

Baimen agiri honen xedea ikerketa honetan parte hartuko duten pertsonen lanaren izaeraren inguruko azalpen argiak jasotzea da, beteko duten rolaen inguruko argibideak ere emanaz. Mila esker zure parte hartzeagatik aldezturirik.

Ikerketa honen arduradun nagusiak Jon Mikel Azpiazu eta Oidui Usabiaga dira, Euskal Herriko Unibertsitateko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak Graduko ikasle eta irakasle-ikertzailea, hurrenez hurren.

Nik, _____-k, baimena ematen dut ikerketaileek burutzen ari diren ikerlana garatzeko ikerketako datuak jasotzeko beharrezko informazio biletak eta baliabideen erabilera egin ditzaten.

Aurrekoa betetze aldera honako hau jakinarazi zait:

- Parte hartzeko gonbidapena jaso nuela eta nire onespena (baimena) erabat borondatezkoa dela.
- Baimen Informatu orri honen kopia jasoko dudala.
- Ikerlan honen helburu nagusia Usurbilgo eskola kiroleko (Zirimara) ikasleek jolasten dihardutenean sortutako liskarrak aztertu eta berauek ebazteko modua aztertzea izango da.
- Ikerketa honetan zehar Datuen Babeserako Legeak zehazturiko SZEA eskubideak bermatuko direla:
 - o Sarbide-eskubidea
 - o Zuzentzeko eskubidea
 - o Baliogabetzeko edo ezeztatzeko eskubidea
 - o Aurka egiteko eskubidea
- Jasoriko informazioa eta ikerketako erantzunak konfidentzialak (sekretuak/isilpekoak) izango dira.
- Anonimotasuna mantenduko da. Zuen datu pertsonalak ez dira une batean ere erabiliko.
- Datuak ikerketa helburuetarako bakarrik erabiliko dira eta emaitzak Zirimarako talde eragilean bakarrik partekatuko dira.
- Ez duzue diru saririk jasoko ikerketa lan honetan parte hartzeagatik. Ez duzue parte hartzeko ordainketarik egin behar.
- Galdera edo zalantzaren bat badaukazue harremanetan jar zaitezke ondorengo arduradunekin:

Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Jon Mikel Azpiazu (jmazpiazu97@gmail.com)
Oidui Usabiaga Arruabarrena (oidui.usabiaga@ehu.eus)

Hezitzailearen izena eta sinadura

Informatzailearen izena eta sinadura

Lekua eta data: Usurbilen, 2019ko maiatzaren 14an